

Herririk Herri |2|
Durangoko Udalak 1972an Francori emondako domina kendu deuto.

Erreportajea |16-17|
EAEko hauteskundeetako emaitzen errepasoa eta alderdien balorazioa.



Lau Hanka |26|
Katuak zutunik jausten diren ustea zergaitik den okerra aztertu dogu.

Erraketalariak omenduko ditue Martxoaren 8an

Erraketalarien gaineko erakusketak inauguratu eben atzo Durangoko Arte eta Historia Museoa.

Bardintasanaren alde jardun dauen hainbat emakume omenduko dabe Durangoko Andragunean.

Emakumearen Nazioarteko Egunagaz bat eginez, ekitaldi sorta prestatu dabe Durangaldean.

3



Erraketalarietarako buruzko erakusketan kirol horretan jardun eben emakumeak elkartu ziren atzo. Kepa Aginako

Anbulatorio zaharrak 40. urteurrena ospatu dau asteen

Durango • Anbulatorioan beharrez jardun daben langileak bertara gonbidatuz ospatu dabe asteen osasun etxearen 40. urtemuga. Maribi Zuluaga traumatologian erizaintza-laguntzaileak ambulatorioa sortu zenetik bertan beharra egitearren 'Bakida' saria jaso dau.

2

Hirigintza plana egiteko herritarren ekarpenak batu ditue

Elorrio • Hiri-antolamendurako Plan Orokorra elorriarren ekarpenak jasotzeko mahai tematikoak antolatu ditue. Batzar horretan herritarrek plazaratutako eritziekin osatutako txostenaren arabera, elorriarren biztanle aldetik zein industriari jagokonez "garapen neurtua" gura dabe.

4

Euskararako bidaia, lehenengo pertsona

KULTURA • Jon Maia bertsolari eta idazleak zuzendu dau 16. Korrikaren 'Ongi etorri' lema gaitzat dauen *Bidaia Intimoak* dokumentala. Plateruenean emongo dabe, eta burututako lanaz aritu jaku egilea.

13

Sokatira jaialdia bihar Abadiñon

KIROLAK • Abadiño Sokatira Taldeak antolatuta, Euskal Herriko 12 talde eta Asturiasko eta Herbehereetako bana batuko dira bihar Zelaietako probalekuan. Hiru modalitatetan tiratuko dabe, 13:00etan hasita; horreetako batean gizonak eta emakumeak eraturako talde mistoak lehiatuko dira.

25

• Durango

Aurrekontuak bigarren urtez luzatzea erabaki dau Udalak

3

• Iurreta

Oinezkoendako zirkuitu zabala sortu gura dau Udalak

7

• Mallabia

www.mallabia.org martxan

7

DHEO DURANGO

Hizkuntza Escuela Oficial
Eskola Ofiziala de Idiomas

MATRIKULA EPEA:

Matrikula 2009ko otsailaren 26tik martxoaren 18a arte egin ahal izango da.

MATRIKULA LIBREA 2008-2009

MATRIKULA ON-LINE EGINGO DA:

Matrikula egin nahi dutenek Internetez bakarrik egin ahal izango dute, honako web orriaren bidez:

www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net

(Ikastetxeak eta ikasketak/Hizkuntzaren Irakaskuntzak/Berriak)

Matrikula zelan burutu, hizkuntzak, maila eta eragin-eremuari buruzko informazio gehiago jasotzeko:

www.eoidurango.net

Zubiaurrea, 1 (DURANGO) • Tel.: 94 681 66 45 - 94 620 33 42



HERRIRIK HERRI >

▣ DURANGO

Anbulatorioa zabaldu ebela 40 urte bete izana ospatu dabe

Galdakaoko Ospitaleko zuzendaritzaren eskutik 'Bakida' jaso dau Maribi Zuluaga beharginak

Durangoko Anbulatorioak ateak zabaldu zituela 40 urte bete dira dagoeneko. Hori aintzat hartuta, bide horretan lanean jardun daben beharginak

gonbidatuz urteurren ekitaldia ospatu dabe asteen. Era berean, Galdakao-Usansolo Ospitalearen zuzendaritzaren eskutik 'Bakida' — osasun zentroaren aitortza oroigara

ria— jaso dau Maribi Zuluagak, Traumatologian erizaintza laguntzaile diharduen durangarrak.

"Bizitza osoa daroat"

Anbulatorioak beste urte bete ditu bertan beharrean Zuluagak; 40 urte. Emozinoak hartuta, ambulatorioan lanean 20 urte zituela hasi zelagoratu dau, Gurutze Gorriaren bitartez: "Bizitza osoa daroat. Asko dira pasarteak. Gehienak onak, orain gogoratu ez arren; txarrik be egon da, baina hobeto ahaztea". Zuluaga eta Teresa Lizundia Osasun Laguntzaile Teknikoak — Durangokoa haube— dira orduan hasi eta orain be lanean darraien bakarrak. Zuluagak dino asko hasi dela zentroa.

1969tik 1993a bitartean Durangoko Anbulatorioak Lehen Mailako Arreta be hartu eban,

Espezializatua ez eze. Landakoko zentroa sortu arte izan zen hori. Aitatu daigun, bestalde, 1998an Barrualdeko Eskualdearen menpe egotetik Galdakaoko Ospitalearen menpeko izatera igaro zela. Halantxe gogoratu dau ekitaldian Galdakaoko erietxeko kudeatzailer Santiago Rabanalek. 40 bat lagunek egiten dabe behar Durangoko Anbulatorioan, eta Lea-Artibai eta Durangaldeko 100.000 lagun ingururi emoten deutso zerbitzua.

Lea-Artibai eta Durangaldeko 100.000 lagun ingururi emoten deutso zerbitzua

Teknologia barriari egokitzeko modernizazio prozesuan barneratuta dago zentroa



Gaur egun, ambulatorioa, teknologia barrietara egokitzeko modernizazio prozesuan dagoz barneratuta. Iban Gorriti

Landako Gunea birmoldatzeko lanak datozen asteotan hasiko ditue

Alluitz eta Sasikoa kaleen lotunean Udalak aurreikusitako biribilgune barria egiten be hastekoak dira

Espainiako Gobernuak Tokiko Inbertsioen Estatu Fondoetarako errege dekretuan onartutako egitasmoetako hainbat, hamabost egunen barruan hasiko ditue. Halantxe jakin eragin dau Aitziber Irigoras alkateak. Horreen artean dagoz Landako Guneako birmol-

Aurkeztutako 15 egitasmoak onartu ditue eta 4,86 milioi euroko laguntza jasoko dabe

datze-lanak (154.230 euro), irisgarritasun-baldintzekin bat egiteko, eta Alluitz eta Sasikoa kaleen artean aurreikusi daben biribilgunea (199.000 euro). Azken kale horre-

tan lurpeko zaborrontziak jartzeko lanak (228.000 euro) be hasiko ditue laster.

Komentukaleko plazatxoa

Durangoko Udalak aurkeztutako 15 egitasmoak onartu zitueen. Halanda ze, 4,86 milioi euroko laguntza jasoko dau Espainiako Gobernuaren eskutik Udalak. Aitatu doguzen obra nagusi horreez gainera, Kalebarriko liburutegi barrirako sarbidea izango den Komentukaleko plaza barriro urbanizatzeko lanak (95.700 euro) be hurrengo asteotan hasiko ditue, Tabira igerilekuen kanpoaldean drainatze-sistema jartzeko lanak (180.000 euro) ez eze. Orainsu adjudikatu ditu behin betiko lanok

guztiok Udalak; baita Landako zein Zabalarra eskoletan egin beharreko hobekuntza lanak be (262.000 euro denera). Halan be, azkenengo lan horreek geroago hasiko ditue. Ikasturtea amaitu ondoren, hain zuzen be.

Txosnak jartzeko araudia

Bestalde, aldatu egin dabe Sanfaustoetan txosnak jartzeko eskaera epea. Txosnak jartzeko araudian aldaketa hori egitea aho batez onartu dabe udal agintariek. Alkatteak argituta araberera, "Sanfaustoak doguz uriko jai nagusiak, eskaera asko izaten da, eta epealdi laburra dela uztailetik urria arteko helarazo izan deuskue, eskaera egin eta prestatu beharrekoak

prestatzeko". Horren aurrean eskaera epea apirilera aurreratzea onartu dau udalbatzarrak, denpora gehiago emoteko; urte osoari begirako neurria da. Txosna Batzordeak proposatuta aldatu dau Udalak eskaera-epea. ■ A.B.

Landako eta Zabalarra eskoletan aurreikusi ditueen hobekuntza-lanak ikasturtea amaitu ondoren hasiko ditue

Txosnak jartzeko eskaera epea uztailetik apirilera aurreratu dau udalbatzarrak

Francori uriko domina kendu deutso Udalak

Franco diktadoreari 1972an emondako Uriko Urrezko Domina ematea atzera botako dau Udalak. Halantxe onartu dau udalbatzarrak, aho batez. Erabakia Madrilgo Gobernuari edo bestelako zein instituzinori helarazo aztertuko dabe orain udal arduradunek.

EB-Berdeek gogoratu dabenez, "diktadorearen jarduera sufritu ebenen memoriari egin dako kaltea ordaindu" gura izan dabe. "Memoria historikoagaitik merezi eban, Durangok asko sufritu dau-eta". Aralarrek "lotsagarritzat" jo dau "herriaren kontra altxatu zenari, torturatzaile eta hiltzaile izan zenari, domina emotea", eta ados izan dira diktadura sufritu ebenen alde domina kentzeagaz.

Aralar: "Lotsagarria da herriaren kontra altxatu eta torturatzaile eta hiltzaile izan zenari domina emotea"

Memoria Historikoaren Legea bete baino ez dabela egin gogoratu dau PSE-EEK

PPK be ondo deritzo diktadura haren kontra egiteari, eta gogoratu dabe aurretik be erakutsi dabela gaitzespena. Halan be, "gaurkotasan gehiago daukien" bestelako egoeren aurrean be "adore eta grina" bera agertzeko eskatu dau. PSE-EEK gogoratu dau Memoria Historikoaren Legea betearaztea dela hori.

Zapalkuntza salatu dabe

Lan asko dagoela egiteko nabarmentzeagaz batera, "ordukoentzat benetako aitortza eta bultzada psikologikoa" dela uste dau Talde Mistoak. Euskal Herrian "guztizko genozidioa" egin ebela dinoe, eta oraindino estatu kolpeko hainbat sinbolo badirela: "Zapalkuntza itzela izan zen eta askoren zauriak ez dira itxi. Asko dago argitzeko".

EAJk urrezko domina ez eze 40 urte "errepresibo eta lotsagarri" hareek be gaitzetsi gura izan ditu: "Gerra, erbestertzeak, zapalkuntza... sufritu zitueen Francoren eskutik". Martxoaren 31 ekarri dabe gogora, eta "faxismo eta diktadura osoa" gaitzetsi dabe. ■ A.B.

EAJk urrezko domina ez eze "40 urte errepresibo eta lotsagarri" gaitzetsi ditu



Bigarren urtez, aurrekontua luzatzera behartuta

PP, PSE-EE eta Talde Mistoak kontra izan ditu EAJK; Aralar eta EB-Berdeak abstenitu egin dira

Ez dau aurrera egin EAJK "erantzukizun-ariketa eginez eta jarrirako traba guztien gaitetik" aurkeztutako ia 35 milioi euroko 2009rako udal aurrekontuak. Alkatearen berbatan, "ekarpenek aberastutako aurrekontu borobila" zen. PP, PSE-EE eta Talde Mistoaren kontrako botoakizian zituen Gobernu Taldeak, lau ordu iraun zituen eztabaidan. Aralar eta EB-Berdeak abstentzinoekin, babesik barik, udal aurrekontua bigarrenez luzatu beharrean dagoz jeltzaleak oraingoz. Aurrekontuari 78 zuzenketa partzial aurkeztu utsiezen, eta osotasuneko bat.

direla aitortuz; "arinetan" ez dagoela jarduterik be gogoratu dabe. Aralarrek, bestalde, "erantzukizunez" jardutea zeukan helburu; ez dela euren aurrekontua eta ez dabela euren kudeatuko arazoitu dabe, baina aurrekontua edukitzea ez dabela "trabatuko".

PSE-EEK gestino "txarra" berretsi dau, eta zuzenketa garrantzitsuenak onartu ez outseezela nabarmendu

Gehiegizko gastua

PPren ustez, "gastu arrunta gehiegi zabaltzen" dauen aurrekontua da aurkeztu dena: "Ahulenak lagundu behar ditu Udalak; gainerakoei begira, baldintza egokiak sortu behar ditu bakotzak zelan aurrera egin erabakitzeke". Presoen sendeentzako laguntzekin eta euskara lehenesteagaz be ez datoz bat.

Sozialistek EAJren "gestino txarra" berretsi dabe, eta gogoratu zuzenketa "garrantzitsuenak" ez direla onartu: enplegu eta formaziorako 800.000 euro eta babeseko etxeetarako milioi bat euro. Udala "geratzearen" ardura EAJrena dela dinoe, eta "jarrera aldaketa" eskatu dabe "akordioetarako bideak" sortuz.

Talde Mistoak izan da osotasuneko zuzenketa aurkeztu dauen bakarra. Udalak parte-hartzea bermatu behar dauela nabarmendu eta aurrekontua ordenantza fiskalekin batera eztabaidatu behar dela berretsi dabe. Aurrekontuan, "atalen arteko desoreka" aitatu dabe, eta proposatutako lanpostu zerrendaren haritik udaleetxeko lan-taldearen "behin behinekotasuna". ■ A.B.

Zuzenketa %52 onartu zirela dino EAJK; %7 erretiratu egin zirela eta besteak atzera bota

Emendakinen %52

Udal talde guztiekin berba egin daben negoziazioetan zuzenketa %52 onartu ditueela argitu gura izan dau Gobernu Taldeak; %7 erretiratu egin ei ziren eta besteak atzera bota: "EB-Berdeak eta Aralarren denak onartu ziren, eta PSE-EEren erdiak"; "alderdi eta hauteskunde interesak gailendu dira, eta beste alderdiekin adostutako inbertsinorik" ez dago, "ez krisia gainditzeko proiektu aitzindaririk ez itunik hainbat elkartegaz".

Talde Mistoak aurkeztu dau aurrekontuaren osotasuneko zuzenketa bakarra

EB-Berdeek aurrekontu "ona" izan arren ez dela euren arazoitu dabe, egindako ekarpenak jaso

DURANGALDEA



Hausnarketarako eta aldarrirako eguna da Emakumearen Nazinoarteko Eguna. Judit Fernandez

Martxoaren 8ak ekitaldiz hornituko dau asteburua

Emakume erraketariak gogoratuz erakusketa zabaldu dabe Durangon

Emakumearen Nazinoarteko Eguna, Martxoaren 8a dogu domekan. Gogoeta eta aldarrirako eguna. Elkartzeko eta udalek zein emakume elkarrekin antolatutako ekitaldietan parte hartzeko eguna. Durangaldean be makina bat dira eraturako ekitaldiak.

Durangon Andragunea inauguratuko dabe martxoaren 7an

Emakumeen topagunea izan gura dauen Andragunea inauguratuko dabe, bihar, Durangon. Eta bertako hainbat emakumeren lana aitortzeko omenaldia be batuko dau 12:30ean hasiko den ekitaldiak: erraketariak eta orain

30 urte sortutako Durangoko Emakumeen Taldea gogoratuko ditue, esaterako. San Agustinen *Erraketariak* erakusketa zabaldu dabe, gainera; emakumeok bazkaria be egingo dabe gaur.

Bartolome Ertzilla musika eskolako ikasleen saioa eta *¿Se puede?* (Mamacrea-Bilbo) antzezlan antolatu ditue biharko, eta martxoaren 8rako, Lilakrosa, bazkaria eta manifestazioa.

Deneriko ikuskizunak

Abadiñon, barriz, Anboto Azpiko-Damak elkarrekin ikuskizuna presatu dau gaurko, eta, domekan, *Zai beti Zai* (Oihulari Klown) antzezlan hartuko dau Txanporta kultur etxeak. Elorrioren, *Emakumeak Munduan* (Benito Pajares 2006ko World Press Photo saria) argazki

erakusketa antolatu dabe, eta, domekan, Bilboko Arriagatik 12:30ean urtengo dauen manifestazioan parte hartzera deitu dabe. Aitatu daigun Arriolak Maniquis (CIA Maniquis) antzezlan hartuko dauela gaur. Literatura eta musika uztartuz *Esanen Aduan* ikuskizuna dogu, barriz, Iurretako Ibarretxe kultur etxean. Egitarua osatuz, bihar, andrendako afaria eta kontzentrazioa izango dira, besteak beste.

Berrizen, antzerkia dago gaur, eta etzi emakume bertsolarien saioa. Zaldibarren afaria eta dantzaldia (zerrenda osoa, agendan).

Antzerkia, afaria, dantzaldia, erakusketa... hainbat dira antolatutako ekitaldiak

PREST
MONDRAGON UNIBERTSITATEA
UNIBERTSITATEA BIZITZEKO PRESTI
ATE IREKIAK
Bitorriko zarela jakinarazi!
www.mondragon.edu/prest

GOI ESKOLA POLITEKNIKOA

MARTXOAK 12 - 17:30 osteguna
ARRASATE-MONDRAGON AULA MAGNA Tel.: 943 73 96 29 // bgueren@eps.mondragon.edu

MARTXOAK 28 - 11:00 larunbata
ORDIZIA AULA MAGNA Tel.: 943 88 00 62 // eurkia@goierrieskola.org

ENPRESA ZIENTZIEN FAKULTATEA

APIRILAK 4 - 10:00-13:00 larunbata
ONATI AULA MAGNA Tel.: 943 71 80 09 // sgarate@peteo.mondragon.edu

APIRILAK 2 - 18:00 osteguna
IRUN AULA MAGNA Tel.: 943 63 91 29 // iniartrabili@bidasoa.etes.mondragon.edu

HUMANITATE ETA HEZKUNTZA ZIENTZIEN FAKULTATEA

MARTXOAK 12 - 18:00 osteguna
ESKORRIATZA AULA MAGNA Tel.: 943 71 41 57 // sarierola@huheri.mondragon.edu

ELORRIO

Datozen hamar urteetan Eloorrioren hirigintza antolamendua definituko dauen plan orokorra osatzen dabil Udala. Gai horren inguruko herritarren ekarpenak jasotzeko eztabaida eta parte-hartze prozesua abiatu eben urrian. Mahai tematiko horreetan plazaratutako eritzia *Elorrio denon artean* izeneko txostenean batu eta ikusgai ipini ditue www.elorrio.net webgunean.

Txostenak ildo askotako eskaerak jasotzen dituen arren, nagusiki, hiru ondorio atera daitezke. Batetik, herritarrek Eloorrioren hazkunde kontrolatua gura dabe. Sabaia 8.000 biztanletan ipini dabe. Gauregun, Eloorriok 7.200 biztanle ditu. Gurari hori erakutsi dabe herri giroa galdu ez daiten; herri izaera mantentzeko eta hazkunde artifiziala deritzoena eragozteko. 8.000ko zifra ezartzeko herriak inoiz izan dauen biztanle kopuru handiena –orain 20 bat urte, azkenengo atzeraldi ekonomikoaren aurretik– hartu dabe oinarri moduan, datu errealistatik abiatzearen.

Biztanle kopuruari zein industriari jagokonez, garapen neurtua gura dabe

Ildo horretakoa da bigarren ondorio nagusia be, baina biztanle kopuruari barik industriaren garapenari jagoko. Arlo horretan be ez dabe larregizko hazkundetik gura; lau edo bost hektarea, goitik jota.

Etxebizitza kopurua

Bestalde, etxebizitza barrien muga 350ean ipini dabe: "Hor kontrastan bat ikusten da. Etxebizitza horreek eginez gero, 8.000 biztanletik nahiko gora gengokez. Halan be, datu horreek beti dira interesgarriak herritarren nahiak zeintzuk diren jakiteko. Udalaren zeregin da datu horreek ondo ulertu eta zuzen baloratzea", dino Niko Moreno alkateak.

GARAI

EAJK zalantza agertu dau alkatea liberatzearen gainean

24 urtean liberatu bako alkatea izanda "beharrezkoa" ete den galdetu dau

2009ko urtarriletik dedikazio edo lanaldi partzialean liberatuta dago Gontzal Sarrigoitia Garaiko alkatea, eta EAJK bere zalantza agertu dau erabaki horren gainean. "Bizi dogun krisi egoeran ez da behar bada erabaki egokiena", jeltzaleen

Herria neurrian hazi daiten gura dabe elorriarrek

Hori da hiri-antolamendurako eztabaida prozesuko ondorioetako bat



Industriaguneen hazkunde neurtua da mahai tematikoetako parte-hartzaileen eskakizunetako bat.

Hirugarren ondorio nagusiak ingurumenagazko errespetua dau ardatz. Herriko basoak, naturagunea... ondasun moduan hartzen ditu herritarrek, eta zaindu daitezela eskatu. Ildo horretatik, Udalak ibilbide naturalen eta bidegorrien sarea –oinezkoendako zein

Datuok egoki baloratu ondoren, apirilerako prest gura dau Udalak Plan Orokorren zirriborroa

zikloturistendako– osatzeko asmoa dauka etorkizunean.

Orain Udalarari jagoko etxeko lanak egitea. Apirilerako prest izan gura dabe Hiri-Antolamendurako Plan Orokorren zirriborroa. Behin betiko onarpena 2010eko udazkenerako gura dabe. ■ J.D.

roan udalbatzarrak aho batez onartu eban eta proposamen hori. Alkatea ez eze, Udaleko administrari laguntzailea lanaldi osoa pasatzea be adostu eben.

Tramitazioetan

Oraindino administrari laguntzailea ez dago lanaldi osoan, nahiz eta tramitazioak eginda egon. Epe hau bukatu eta egoera argitu arte ez da zehaztuko alkateak zein ordu-tegi izango dauen; bere garaian egingo dabe publiko. Oraingoz, administraria dagoenean egoten da alkatea Udaltxean. ■ M.O.

"Bizi dogun krisi egoeran ez da behar bada erabaki egokiena", alderdi jeltzalearen ustez

ustez. Horretaz gainera, "preminazkoa" ete den argitu beharra dagoela be nabarmendu dabe. Izan be, herrian liberatzen den lehenengo alkatea da Sarrigoitia.

Dena dela, EAJK eritzia aldatu dauela esan leiteke, joan zen aza-

Kiroldegiko kudeaketa ezbaian

Ez da oraingo kontua, aspaldidanikoa baino. Halan be, kiroldegiko kudeaketak kexak sortzen ditu oraindino erabiltzaileen aldetik. Gabeziak antolamendua, kudeaketaren zein azpiegituren ingurukoak dira, eta kiroldegia kudeatzen dauen enpresa aldatuta be ez dira konpondu.

"Geu be kezkatuta gagoz erabiltzaileen kexak ikusita. Ikusten dogu zerbitzuak ez dituela ez euren ez geure nahiak asetzen", dino Niko Moreno alkateak. Halan be, oraintxe bertan ez dago ezer egiterik, "lotuta gagozelako". Legegintzaldiagaz batera amaitzen da kontratua, eta orduan "beste eredu bat landuko dogu, Udalak kontrol handiagoa izateko moduan".

"Geu be kezkatuta gagoz; ikusten dogu zerbitzuak ez dituela beharrak asetzen"

Bitartean, herriko kirol azpiegituren gaineko azterketa egiten dabilz, gabeziak identifikatzeko. Kirol gune barri baten beharra ikusten dabe; horixe izan zen, hain zuzen be, hiri antolamendurako mahai tematikoetan herritarrek erakutsita-ko beste nahi bat. ■ J.D.

IZURTZA

Argazki lehiaketa antolatu dabe

Maiatzaren 31 arte zehaztu dabe Bitaño kultur elkarteak antolatzen dauen Argazkigintza Lehiaketara lanak bidaltzeko epea. Argazki lehiaketaren gaia herria bera izango da: Izurtza. Izurtzako monumentuak, paisaia, bizi-modua, herritarrek edo argazkilariek herria islatzen dauela uste daben bestelako elementuak agertzea da argazkiek bete beharreko baldintza.

Argazkilarien lanak, maiatzaren 31 arte, Izurtzako Udaltxean jasoko ditue, 11:30 eta 15:00ak bitartean. Maiatzaren azkenengo egunetik ekainaren 3a bitartean erabakiko dau epai-mahaiak 600 euroko lehenengo saria, eta 200eko accesit biak nortzuei emon. Ekainaren 3an izango da sari banaketa. ■ I.E.

katerin ardoak
iñaki uribe
KURUTZIAGA 40 48200 DURANGO T/F 946 200 427
saltsan

URTXINTXA
HEZIKETA JOSTAILUAK-ESKULANAK
Aukera ezazu hemen zure erregalua
Andra Mari kalea, 9 DURANGO Tel.: 94 681 50 17

Hemen agertu gura badozu
deitu!
94 621 79 02

Gremioen gida

Altzarien Zaharberritzea

Txingoka Zaharbarrikuntza
«Sitsaren tratamendua»



Altzariak eta zurezko osagai arkitektonikoak zaharberritzen ditugu

Tel.: 659 746 499 • Zornotza

Elektrizitatea

Electricidad DURANGO, S.Coop.



MUNTAIA ETA INSTALAKUNTZA
ARGITERIA
MANTENIMENDUA

Arañondo-torre, 6 DURANGO
Tel.: 94 681 87 38 - Faxa: 94 603 25 26

Elektronika

URBASA Elektronika

SALMENTA ETA KONPONKETA • TV • SORBUA • BIDEOKA • IRPATA
KOMUNIKAZIOA • ANTENA KOLEKTIBOAK • SATELITE BIDEZ • ALARMAK

Askatasun Etorhidea, 13
Tel.: 94 681 33 03
Durango



Panasonic

Iturgintza

Arriendi ITURGINTZA

Klimatizazioa
Kalefazioa
Iturgintza
Gasa

Arriandi, 16. behe, 3. eta
Sakelekoa: 607 24 58 54
Faxa: 94 681 81 58
Iurreta

Baimendun
Instalatzailerak

Argiztapena

MARKIEGI



Plateruen plaza 4, behe
48200 Durango
Tel.: 94 620 35 20
94 620 21 76
Faxa: 94 681 56 95
marklegi@marklegi.com

Gas

CIAL-UME
gas-likidoen banaketa-etxea, s.l.

**GAS INSTALAZIOAK
ETXE OFIZIALA**

INSTALAZIOAK ETA ALDIZKAKO BERRIKUSTEAK

Iurreta, 7 • IURRETA Sakelekoa: 94 681 0877
Komentu kalea, 2-A • DURANGO Tel.: 94 681 02 60

Mallabiena

M.Z.O ITURGINTZA - GASA - BEROGAILUA - ERAIKUNTZA, S.L.

Mallabiena industriagunea, 6
48215 Iurreta • Tel.: 94 681 88 62
mallabiena@mallabiena.com



Lorazaintza

Jardines Patxi Lorategiak

Mantenua eta Diseinua
Landaketa eta Inausketak
Ureztatze sistemak
Barrualde eta Kampoaldea
Eskatu zure aurrekontua beldur barik

Santikurutz, 15 48200 DURANGO Myriam 696 463 086
Faxa: 944 668 853 Patxi 696 463 085

Eraikuntza

arlax

ERAIKUNTZA
IGELTSERITZA

Baserriak eta etxebizitzak berrizatu eta zaharberritzea
Zurezko egiturak
Barrualdea diseinatzea

Teilatu, fatxada, bainugelak, etab.

Antso Estegiz etorb. 11 - 3 B Sakelekoa: 615 77 91 70
DURANGO 605 77 03 57

Iturgintza

gremioen koordinazioa

BAINUGELAKO KOMUN OHTZIAK ETA BEROGAILUAK
AZULEJO, ZOLADURA, TEILA, ZERAMIKA ETA HORMIGOIA
ERAKUSKETA, SALMENTA ETA EZARPENAK

Barne Dekorazioa

a-metz
[barne] diseinua

Barne dekorazioa
Mak
Proiektuak - 3D
Irudiak
Erekinak
Gizartearen
Ondare berrak
Aldeak
Ondareak

www.a-metz.com

Ubide
iturgintza

188 PK,
48200 DURANGO
94 603 05 06
625 70 22 08
ubide@euzkabet.net

Iturgintza, gasa eta berokuntza

**HEMEN AGERTU
GURA BADOZU
DEITU
94 621 79 02**

ZALDIBAR

Hiru alderdiren aldeko botoagaz onartu ditue 2009ko aurrekontuak

Ezustekorik barik, aldeko 8 botogaz onartu ditue aurtengo aurrekontuak, eta kontra egin dau EAK

Guztira 4.121.442 euroko Udaleko kontua aurreikus-ten dauen aurrekontu proposamena da onartutakoa; Ogasun Batzordean gehiengoaren baiezkua jaso ebana.

Onartutako kontuan jasotzen diren inbertsinoei jagokenez, diru-atal esanguratsuenak jasoko ditueen proiektuak honakoak izango dira; Gatzaga auzoko saneamendurako eta auzo bereko bidearen konponketarako 600.000 euro bideratuko ditue, futbol-zelaian estalki barria eraikitzeko 170.000 euro gorde ditue, eta Udaletxean

egokitze-lanak egiteko be 120.000 euro jasotzen ditu onartutako kontuak. Horreek burutzeko, Udalak aurtengo izango dauen zorpetzea %12koa izango dela aurreikusi dabela azaldu dau Igor Barrenetxea-Arando zinegotzi jeltzaleak.

Udalan ordezkaritza daukien oposizionoko hiru alderdietatik, sozialistek eta independentetek aurrekontuen aldeko botoa emon eben, eta "batzordeetan eztabaidatu beharrekoa landuta eta partida gehienekin ados izanda" euren bozka aurrekontuen aldekoa izatea arrazoitu eben.

Udalak 2009an izango dauen zorpetzea %12 ingurukoa izatea aurreikusi dabela dino Barrenetxea-Arando

"Partida gehienekin ados" dagozela dinoe sozialistek eta independentetek

Bestelako lehentasunak

Kontrako aldean, Gobernu Taldeak proposatutako aurrekontuetan islatzen diren lehentasunak ez beste beharizan larriagoak dagozela herrian esan dau udalbatzarrean Carmen Sampedro zinegotziak, eta Earen kontrako botoa arrazoitu: "Zaldua plazaren barrikuntza eta herriak hainbeste behar dauen kultur etxea" izan beharko litzateke, euren ustez, Udalaren eta aurrekontuen aurtengo lehentasunak. Arrazoi bi horreetan oinarritu eban EAK aurrekontuen kontrako bozka. ■ I.E.

ABADIÑO

Udaleko beste bi alderdiak kritikatu ditue jeltzaleek

"Jarrera hipokrita" izan dabela egozten deutse

Muntsaratz auzoan eraikitzen dabilzen 154 babeseko etxebizitzetako baten jabe egin ahal izateko zehaztu ditueen baldintzei jagokenez, ezker abertzaleak eta Gobernuan dagoen Talde Independentek "modu hipokritan" jokatu dabela dinoe jeltzaleek. "Azken hamar urteetan herrian urtebete bizi izan denak, nahiz eta gaur egun kanpoan bizi, Abadiñon errotatuta dagoenaren pareko esku-

bideak" dituela zehaztu zen udalbatzarrean, Independentek alde bozkatu eta ezker abertzaleak abstentzinora jo izana salatu dabe.

Etxebizitzen eskuratzea

Jeltzaleek dinoenez, modu horretan kalte egiten jake gaur egun Abadiñon bizi eta zergak bertan ordaintzen ditueenei. Euren alderdiak urteetan egin dauela Muntsaratz gazteenentzako etxebizitza eskuragarriak egin zeitezen lan, eta ezker abertzalearen eta Independenteen jarrera proiektuaren kontrako izan dela orain arte dinoe: "Proiektu hori aurrera ateratzeko ahalegin handiena egin dauena EAJ alderdia" izan dela nabarmen-tzen dabe, hedabideetara helarazotako komunikatuan, eta Independentek eta ezker abertzaleak "proiektua boikoteatu" dabela hainbat urtetan. ■ I.E.

Abadiñon bizi eta zergak bertan ordaintzen ditueenen kalterako dira zehaztutako baldintzak, jeltzaleen ustez

Orain arte proiektua "boikotatzea" egotzi deutse jeltzaleek beste alderdi bie

Olio hondakinak birziklartzeko guneak

Herriko lau auzotan ipini ditue hondakindegia

Etxean sortutako olio hondakinak jasotzera orain arte hilero Abadiñora etortzen zen kamioiaren ordez, herriko etxeetan sortutako olio erabiliaren hondakinak biltzeko gune finkoak dagoz joan zen astetik herriko zenbait gunetan.

Etxeko olio hondakinak bildu eta birziklartzeko, herriko lau gunetan kokatu dituzte hondakinde-

Etxeko olio hondakinak biltzeko eta birziklartzeko errazteko ipini ditue hondakindegi larriak



Hasita dagoz Muntsaratzeko eraikitze lanak. I.Esteban

giak, herritarrei olio birziklartzeko aukera errazteko helburuagaz.

Matiena auzoan, Traña Barren etorbidean (elizaren ondoan) eta Erezena kalean kokatu ditue erabilitako olio jasotzeko hondakindegia. Zelaietan, Zeletabe kalean ipini ditue laranja koloreko hondakindegia. Muntsaratz, barriz, Andra Mari kalean.

Igerilekua zabalik

Urtarrilaren 23an Euskal Herria astindu eban haizeteak Astolako igerilekuan eragin zituen kalteak konpontzen hilabete emon eta gero, martxoaren 2tik barriro zabalik dago Astolako igerilekua, konponketa lanak amaituta.

Igerilekuaren estalkia eta alboetako beiratea apurtu zituen urtarrilaren 23an izan zen haizeteak, eta erabiltzaileendako gixieneko segurtasun neurriak betetzen ez zirelakoan, itxi egin eben igerilekua. Konponketa lanek iraun daben bitartean itxita egon da igerilekua, eta Elorrioko Udalgaz lotutako akordioaren arabera albo-ko herrian izan dabe abonatuak ordezko zerbitzua. ■ I.E.

Martxoaren 2tik zabalik dago Astolako igerilekua, konponketa lanak amaituta

OTXANDIO

'Andrea Erdi Aroan' gaur Kultur Etxean

Otxandioko Pasealeku jubilatuen elkarteak *Andrearen rola Erdi Aroan* berbaldia antolatu dau gaurko, martxoaren 6rako, herriko Kultur Etxean, arratsaldeko 17:30ean. Cristina Ayuso historialari durangarrak orduko andren bizimodua eta eginkizun sozialak aztertuko ditu.

Berreginen Museoa

Bilboko Berreginen Museora martxoaren 24an (martitzenean) joateko irteeran izena emotera be animatu gura dau Pasealeku elkarteak. Durangaldeko Amonkomunazgoak museoa bisitatzeko txangoa antolatu dau, eta doan izango da.

Bilboko Berreginen Museoa nazinoarteko arte ederren kopiak dagoz. "Otxandion 14:30ean autobusa hartuko dogu, gida batek museoko lanak azalduko deuskuz, eta 20:00etarako Otxandion bueltan egongo gara", azaldu dau Pili Askorbebeitia lehendakariak. Txangoan izena emoteko, telefono honetara deitu behar da: 94.620.05.46. ■ M.Gonzalez.

Gida batek Berreginen Museoko nazinoarteko arte ederren kopien gaineko azalpenak emongo deutsez

MAÑARIA

Ikasleen joan-etorriari diru-laguntza

Bariku goizean egin daben udalbatzarrean aurkeztu dau Gobernu Taldeak ikasketak herrikanpora egitera joan behar izaten daben ikasleei egunero egiten daben joan-etorriaren gastua estaltzen laguntzeko ordenantzaren aurre onarpena egiteko proposamena. "Garraio-ko diru-laguntza" deitu daben ordenantza hori da aurtengo Udalahainbat elkarteri emongo deusaz diru-laguntzen artean barritasuna.

Aurtengo izango da indarrean ikasleen garraiorako Udalaren diru-laguntza

Jagoken hezkuntza zerbitzurik euren herrian bertan jaso ezin daben mañariarrei zuzenduriko diru-laguntza da ahotan darabilguna, eta aurtengo lehengo indarrean izango dena.

Udalbatzar berean, Udaleko zuzeneko diru-laguntzen ordenantzaren aurreko onarpena be mahai gainean izan dabe, eta kirolerako eta euskararako udal diru-laguntzen araudia be landu dabe. ■ I.E.



DIURRETA

Hilerria handitzeko plana lehiaketan ipiniko dabe

Hilabetean adjudikatu eta Aste Santu ondoren hasiko ditue lanak

Hilerria handituko daben bigarren faseko lanak laster hasiko ditue. Joan zen aste-ko udalbatzarrean lehiaketa publikoan ipintzeko baldintza-orria onartu eben. Martxoan zehar erabakiko dabe aurkeztu diren artean aukerarik onena zein den, eta proiektua adjudikatzeaz batera hasiko dira lanak; apirilaren erdialdera beranduen be.

Udalak orain hamar urte inguru erosi eban 2.500 metro karra-

tu inguruko lur zatia. Lehenengo fasean, hilerria goialdetik handitu eben eta orain Zaldai bidearen ondoko zatian egingo ditue lanak.

Hilerri barria lurraren mailatik behera egingo dabe, itxura barrizaila emonez. Guztira, 200 nitxo inguru hartuko ditu. Horrela, Udalak luzaro barik sortuko litzakezen espazio problemak konponduko ditu: "Egia da hilerri zaharrean nitxo batzuen alokera oraintxe amaitzen dela, hamar

urte joan direlako, baina, halan be, epe ertainera espazioa faltako dogula aurreikusten dogu, eta arazoari aurre hartuko deusagu hilerria handituta", dino Inaki Totorikaguena alkateak. ■ J.D.

Orain hamar urte erositako 2.500 metroak erabiliko ditue hilerria berriro handitzeko



Zaldai bidearen ondoan dagoen lur zatia erabiliko dabe hilerria handitzeko.

DI MALLABIA

Udalak www.mallabia.org webgunea ipini dau martxan

Herritarrei "zerbitzua emoteko tresna" izango da

Mallabiko Udalaren webgunea martxan ipini dabe, www.mallabia.org helbidean. Webgunearen zeregin nagusia "herritarrei zerbitzu emotea" da, Aitor Loiola alkateak azaldu dauenez. Horretara, web-guneak "Udalaren atek zabalduko ditu".

Webgune barriak informazio instituzionala zabalduko dau. Horrela, osoko bilkuren aktak eta batzarretarako gai-ordenak denon esku egongo dira. Udalaren gaineko albisteak be bertan argitaratuko ditue. Ze barri aldizkariaren zenbaki guztiak be pdf formatuan eskuragarri egongo dira.

Herritarren eta Udalaren arteko hartu-emonak estutzeko tres-

na bi martxan ipini ditu www.mallabia.org-ek. Lehenengo eta behin, proposamenak Internet bidez egiteko aukera emongo dau; proposamenetarako eta albis-

Udal informazioa ez eze, herritarrentzako argibide orokorretarako zerbitzua be emon gura dau webguneak

teak zabaltzeko inprimakia bete baino ez da egin behar. Bigarrenik, zenbait gairen inguruko herritarren eritzia jakiteko inkestak egingo ditue. Oraingoak, adibidez, Errauts Egunak Mallabiko jai-eguna iza-

teari itzi eta beste bat aukeratzea zelan ikusten dogun galdetzen dau; oraingo, %72 jai-eguna aldatzearen alde agertu da.

Udal informazioa ez eze, herritarrentzako argibide orokorretarako zerbitzua be emon gura dau. Herrian antolatzen diren ekitaldien inguruko agenda eguneratua agertzen dau webguneak. Amaitzeko, herriko telefono eta helbide interesgarrien zerrenda dakar: osasun zentroa, botika eta herri eskolak, besteak beste.

Herria ezagutzera emoteko Mallabitarrok eta kanpotik datozenek be herria ezagutu eta gozatzeko hainbat ibilbide proposatuko ditu webguneak. Era berean, argazki zaharren galeria be kontsultatu daiteke. ■ M.Gonzalez.

Oinezkoei begirako zirkuitua sortu guran

Maspeko sarreran 3. erreia egokitu gura dabe

A-8 autobidera sartzeko biribilguneen beharrekin lotuta, komunikazio sistema orokorreko parte ez diren azpiegiturak Udalaren esku iztea eskatuko deusie Foru Aldundiari. Bazeta ingurutik Mallabiena ingururaino eta Maspetik Arandiaraino Aldundiak egindako oinezkoendako bideak, Mallabienako industrigunera sartzeko errepidea eta Maspe kalera foru errepidea eskuratzeko eskea onartu dau udalbatzarrek, aho batez.

Oinezkoendako zirkuitu zabala egokitzea gura dabe udal arduradunek. Udalagaz adostuta, Bazeta ingurutik hasita egindako oinezkoendako bidea —A-8 autobide sarrerako biribilgune nagusiaren azpitik doana— Mallabienan abiatutako espaloiaz lotu gura dau Udalak: "Holan, kultur etxetik abiatuta

Bazetan hasitako oinezbidea eta Maspe Arandiagaz lotu dauena eskuratu gura ditue

Gaztañataraino egin leiteke oinez, edo Arandiako zubia igarota Arriandiraino be bai. Hori Berezin aurreikusitako astialdi guneagaz be lotu leiteke, eta Amurruatik Orozketagaz".

Oinezkoendako zirkuitu zabala sortu gura dau herrian Udalak

Udalak Maspetik Arandiarainoko oinezbideagaz lotu gura dau hori; era berean, Santa Apoloniarrainoko ibilbidea be konpondu gura dau Udalak.

Maspetik N-634ra

Bestalde, N-634tik urtenda Maspera doan errepide amaieran hirugarren erreia egokitu gura dabe udal arduradunek, ibilgailu pisutsuek gasolindegien aurrean ezkerrean biratzeko eta Abadiñorako noranzkoan N-634 errepidera sartzeko, herrigunera sartu barik. Semaforo bitartez legoke ordenatuta, Iñaki Totorikaguena alkatearen berbetan. ■ A.B.

DI ATXONDO

Hirigintza foroaren bigarren batzarra

Martxoaren 12an da Hirigintza Plangintza zehazteko deitutako herritarren foroaren bigarren hitzordua

Atxondar guztien ekarpena izan daitela datozen urteetako Atxondoren diseinua eta funtsa zehaztuko dauen Hirigintza Plangintzak: horixe da prozesu honen guztiaren helburu nagusia.

Prozesu luzea

Herrian nekazaritzak, industriak, oinezkoendako bideek... baktak zenbateko garrantzia eta lehenetsuna izango dauen mugatuko dauen plangintzan, herritarren erizpideak be kontuan hartzea dau herri batzarren prozesu honek guztiak jomuga; "prozesu luze" honek, Dabid Cobos alkateak onartu dauenez.

Erabakiak modu arinagoan hartu leitekezela be badino Cobosek, baina, emaitza ahalik eta osotuen egiteko modurik egokiena direla herri-batzarrok. Horrela, hirigintzaren diseinua egiteko eta ekarpenak jasotzeko, Apatan, Axpen edo Arrazolan be batzarrek izango dira. ■ I.E.

Lehenengo herri-batzarrean burutu eben inkestaren emaitzak jakinaraziko ditue

Apatan, Axpen eta Arrazolan egingo ditue hurrengo herri-batzarrak

Badira hilabete batzuk Hirigintza Plangintza Orokorra zehazteko Gobernu Taldeak deitutako herri-batzarretako lehenengo egin ebela Udalean: plangintza diseinatze-ko burutuko eben prozesuaren barri emon eben dinamizatzaileek lehenengo batzar haretan, eta parte hartu eben herritarren artean inkestabat burutu, hirigintzari buruz daukiezen eritziak jasotzeko. Datorren astekoa, martxoaren 12koa, prozesuaren bigarren pausua izango da.

Inkestaren emaitzak

Martxoaren 12an, 19:00etan hasita, batzar aretoan batu eta orain hilabete batzuk egindako inkestaren emaitzak azalduko ditu Hirigintza Planeamenduaren partehartze prozesuaren dinamizazio lanetan jarduten dauen enpresak. Ondoren, hainbat proposamen herritarren ekarpenetara zabalduko ditue. Batzar horretan herritarrek egiten ditueen ekarpenen arabera, hurrengo herri-batzarretara eroango daben gai-ordena zehaztuko dabe.

BERRIZ

Lapurretak kezka eragin dabe herriko dendetan

Hainbat dira aspaldian lapurretak jasan ditueen denda eta tabernak



Ustekabeak eta Txiki txiki denda dira lapurreten zerrenda luzeko adibide bi.

Aspaldiluzean herriko hainbat denda eta tabernatan lapurretak egin ditue. Gainera, horreetako batzuetan sarritan sartu izan dira. Kasurik gehienetan gauzez sartu dira, barruan inor ez zela. Baina dendariak edo tabernariak barruan zegozela be gertatu dira lapurretak, herritarren artean kezka areagotuz.

Joan zen astean Salki dendan lapurtu eben. Zerrenda luzeko azken adibidea da. Etxebarria estankotan birritan lapurtu dabe (igazko urrian eta azaroan). Bietan lehenengoa izan zen okerrera. Eskaparatea apurtu, barrura sartu eta tabako kaxak eroan zitueen. Tabako kaxa asko. Erabi-

li eben furgoneta be lapurtutakoa zen. Txiki txiki dendan taktika "landuagoa" erabili eben joan zen martitzenean: hiru lagun sartu ziren dendan, eta bik dendariaren arreta eurenganaten eben bitartean hirugarrenak arropak gorde zituen beroki barruan.

Ondoa dagoen Ustekabeak denetariko dendan hainbat bider saiatu dira lapurtzen, baina ez dabe lortu. Inguruan dago Ama Lur liburudenda be, eta horra sarritan sartu dira; sei-zazpi bider. Ertzaintzaren gomendioa jarraituz, jabeak beti izten dau kaxa erregistratzailerazabalik, diru xehe apur bategaz. Holan, ez dabe beste ezer lapurtzen. Uribe elkartearen eta

Berrizburu futbol-zelaian be sartu dira. Futbol-zelaian, tabernako telebista eroan eben.

Tabernak

Tabernak be ez dagoz salbu. Inauterietako astelehenean jabea barruan zela sartu ziren Guzur tabernan; burua estalita eta eskuan arma bat zeroan lapurrak. Jabea ohartu zen arma fugeozkoa zela, eta lapurrak alde egin behar izan eban. Gau berean sartu ziren Toki Onan be; aurretik be saiatu ziren, lortu barik. Azkenik, Makarro tabernan ez eben sartzerik lortu, gaur hamabost. Atea eta leihoko hesiak bortxatzen zebilzela auzokoekikaratuta alde egin eben. ■ J.D.

Berrizko munarria bisitatz ibilaldia egingo dabe bihar

8:30ean irtengo dabe tren geltokiko plazatik

Berriz Ere taldeak Berrizko munarriak bisitatz ibilbidea antolatu dau biharko. Ibilbideari tren geltokiko plazatik ekingo deusie, bihar goizeko 8:30ean.

Osatuko daben bidea honako hau da: Berriz, Oca, Betzuen,

Berriz Mallabia, Bolibar, Munitibar eta Muxikagaz dituen mugak bisitatu ditue

Gurutzeberri, Oiz, San Kristobal eta Berriz. Ibilbidean zehar herriko lau munarri ikusiko ditue bertatik bertara.

Berriz eta Mallabia banatzen dituen munarria bisitatu dabe lehenengo. Ondoren, Berriz, Mallabia eta Bolibar banatzen dituenera joango dira. Handik, Berriz, Bolibar eta Munitibar batzen diren puntua bisitatu dabe. Azkenik, herrira bueltatu aurretik, Berriz, Munitibar eta Muxika bereizten diren tokitik pasatuko dira. ■ J.D.

ELORRIO

Txarriboda egiten dihardue Portalekua tabernan

Atzo ekin eutsien Portalekua tabernan txarriboda egiteari. Arratsaldean txerria hil eben eta odolosteak egin zitueen. Gaur goizean zatiak egin eta txorizotarako okela prestatu dabe. Bihar goizean txarribodako hurrengo pausoak emongo ditue. Goizean txorizoak prestatuko ditue, eta eguerdian gibel eta odoloste dastaketa antolatuko dabe Portalekua tabernan. Eguna borobiltzeko bertso-afaria egingo dabe Alkartu elkartearen. Jexux Mari Irazu eta Anjel Mari Peñagarikano bertsolariak izango dira txarribodako afaria girotuko dabenak.

IURRETA

Guraso eta hezitzaileendako eskola eratu dau Maiztegik

Guraso eta hezitzaileendako ikastaroa antolatu dau martxora-ko Maiztegi herri eskolak. Guraso eta seme-alaben arteko har-etu-emonak eta seme-alaben arteko komunikazioa lantzea da guraso eta hezitzaileei zuzenduriko ikastaroaren helburua, eta astelehenean bertan zabalduko da izena emoteko epea; Ibarretxe kultur etxean edo Maiztegi herri eskolan. Juan Carlos Alonso psikologoak emongo ditu eskolak, martxoaren 24an, 26an, 30ean eta 31n, Ibarretxen bertan, 18:30ean.

Ordu eta erdiko saioak izango dira, honako gaiok landuz: *Heziketa emozionala, Frustazioaren beharra: Ezetza garrantzia, Nola jokatu gure seme-alabekin familiaren aldaketen aurrean (bereizketa, heriotza...)* eta *Nola bideratu gatazkak*.

DURANGO

Okupatutako etxebizitza bat hustu dau Ertzaintzak



Durangoko Goienkaleko etxebizitza baten sartu ondoren bost hilean hantxe bizi izan diren lagunak bertatik kanpora atara ditu Ertzaintzak aste honetan bertan. Eguaztenean izan ziren bertan ertzainak, eguerdi aldera. Bertan bizi izan den lagun batek ANBOTO astekariari azaldutakoaren arabera, trabarik jarri barik irtetzekoak ziren etxetik.

Bateginezendako laguntza

Bateginez gobernuz kanpoko erakundeak (GKE) euren lana aitortzen dauen laguntza jaso dau. Batetik, Durangon emakume talde batek antolatu ohi dauen elkartasun merkatuaren bitartez 3.202 euroko diru-laguntza jaso dabe. Halan jakin eragin dabe Bateginezeko arduradunek.

Beste alde batetik, Iurretako kristau-ikasbidean diharduen neska-mutikoen eskutik 100 euro jaso ditue, San Miguel de Pochutan (Guatemalan) garatzen dihardueen 'Educacion en Fincas' izeneko egitasmoan laguntzeko, argitu dabenez. Bateginezeko egitasmo barriak aztertzen dihardu orain, eta euren lana hobetzeko modua aztertzen dabilzela be azaldu dabe.

BERBAZ >

“Lorpenak oraintsukoak dira eta astindu politiko bategaz jausi leitekez”

Konstituzinoak emakumea aintzat hartzen ez ebala-eta sortutako mugimendura batu ziren Durangon be



Kepa Aginako

Durangoko Emakumeen Taldea •

- 1991a bitartean jardun eban 1977-78an sortutako taldeak
- Bizkaiko Asanblada Orokorraren baitan zihardueen

Franco diktadorea hil ondoren sortutako gizarte mugimenduaren baitan jaiotako Durangoko Emakumeen Taldeko kide izan ziren Nerea Lizundia, Vitori Ruiz, Itziar Urionaguena eta Puri Sarrionandia. Belaunaldi barriak ez direla galdu leikienaren jabe esan deuskue Martxoak 8aren atarian gagozen honetan.

Zelan gogoratzen dozuez hasierako urte hareek?

Espainiako Konstituzinoaren aurkako mobilizazioekin hasi zen; jasotako arlo baten be ez eban emakumea aintzat hartzen. Dibortzioa, abortoa... geunkazen langai. Andrek gizonen eskubide berak daukiezela jasotzen ete eban zen eztabaida. 1997an hasi ginen batzartzen, Jesuitetan.

Zenbat lagun batzen zinien?

8-10 lagun, une edo kanpainaren arabera aldatu arren. Hainbat adin eta ideologiatakoak, politikan zebilzenak zein ez... Talde oso heterogeneoa zen, ahal zen lekuan batzen zena.

Bizkaiko Asanblada Orokorraren baitan jarduten zenuen.

Bilbon ehunka andra batzen ginen. Orain be badiharduen asanblada sortzean, dibortzioa izan zen gai garrantzitsuena.

Gauzak aldatu dira 30 urteotan?

Herritarrak eta instituzinoak sentsibilizatzea zen helburua, eta erakundeek euren egin ditue alor horretan lortu beharreko helburuak. Halan be, ordu erabakiorrean ez da gai erraza. Praktikara eroatea da kostatzen dena.

Gauzak aldatu dira, beraz...

Sexu informaziorako zentroa, abortu libre eta doakoa... ziren aldarriak. Beraz, gauzak aldatu dira, bai. Hor dira aukera bardintasunerako teknikaria, zinegotzigoa, Andragunea... baita tratu txarrak jasotako andrendako pisua—90ean guk be eskatutakoa—edo lan asko eskatutako familia-plangintza zentroa Abadiñon. Pausoak emon dira, baina, astiro.

Halan be, zer aldatu geratzen da oraindino...

Lan bardinagaitik soldata bar-

dina ez jasotzea edo genero biolentzia hor dagoz.

1990eko urtarrilean Durangaldean tratu txarregaitik 63 salaketa izan zirela salatu zenuen...

Gertatutakoen horrenbesteko bat zen. Baina, ez zegoen orain beste hilketa.

Baleiteke ezagutzera ez emotea...

Ez, gertatuz gero jakiten genduen. Tratu txar asko zegoen, baina, gaur egun beste ez. Adina be deigarria da. Orduan hainbat urtean ezkondata eta urteetan eutsi ondoren banantzera edo salaketa ipintzera ausartutako andrak ziren.

Gazteen arteko erasoen barri jasotzen dogu aspaldian.

Bai, eta oso publikoak dira, orain gehiago ausartzen diren arren salatzerak. Lehen oso ezkutukoa zen dena, orain ez; neurri baten behintzat, tratu txarrak maila sozial eta ekonomiko denetan dagoz-eta.

Mugimendu feministan aldarrikapenak aldatu egin dira?

Baleiteke emondako aldaketen aurrean hainbat gai berraztertutako behar izatea, baina, eztabaidak hor darrai. Erakundeek

“Erakundeek arduratu hartu arren, mugimendu feminista hor dago eta egon behar dau”

“Konstituzinoak ez eban emakumea ezertan aintzat hartzen; horri aurre egiteko hasi ginen”

“Emakumea libre sentitu behar da edozer egiteko; feminismoak bide hori jorratzen dau”

be hainbat arloren ardura hartu arren, mugimendu feminista hor dago, eta egon behar da.

Martxoak 8, gogoratzeko data?

Orain dela gitxikoak dira lorpenok, eta astindu politiko bategaz jausten dira horreek. Egoera ekonomikoaren arabera dena jausi leiteke, aldarriei eusteko inor ez dagoelako. Belaunaldi barriak ez dira lortutakoen jabe; eroso dagoz, ez dabe beharrik ikusten-eta.

Atzerako pausoak emon ditue?

Ez. Ez dira galdu leikienaren jabe. Amatasunagaz edo lan munduagaz dator saltoa.

Berdintasuna lortzeko...

Hor dogu legedia, praktikara eroatea gatxago den arren. Hezkidetzak landu behar da, eta andra bakotxaren jarrera be garrantzitsua da egunerokoan.

Konnotazio txarrik izan dau feminismoak...

Feminismoa inposatutako patriarkatuaren aurka dago, ez gizonen kontra. Edozein emakume libre sentitu behar da gura dauen hori egiteko, eta horretan laguntzen dau. Urratzailea da. ■ A. Basauri

EKONOMIA[>]

> DURANGALDEA

Laguntzak denboraleak kaltetutako basoen jabeei

Instituzinoekin lotu ditue laguntzak basogintza elkarteek eta konfederakundeak

Euskadiko Basogintza Elkarteek Konfederakundeak eta lurralde-elkarteek diru-laguntzak lotu ditue Jaurlaritzagaz eta Foru Aldundiekin azken denboraleak eragindako kalteei aurre egiteko. Urtarrilaren 23ko eta 24ko denboralearen eraginez kaltetutako mendien ugazabek laguntzak jaso ahal izango ditue instituzinoen eskutik. Botatako zuhaitzak albait arinen ateratzea da helburua, basogintza sektorea lagundu eta gertatu leitekeen izurrien ugaltzeari aurre hartzeko.

Laguntzak botatako arbolak kentzera dagoz bideratuta, kalte-

tutako mendiak barrizteko baldintzapean. "Beharrezkoa da zentzuzko denporan kentzea, kalte zuzenez gain, izurriteak sortu leitekez-eta". 2009ko urte osoan izango da laguntzoz baliatzea.

Bizkaia, kaltetuena

Urtarrileko denboraleak eragindako kalteak oso zabaldua dagoz Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE). Halan be, Bizkaia da lurralde kaltetuena. Durangaldean be bota zituen arbolak haizeak; jausitako pinuek Trabakutik Mallabirako bidea trabatu eben, esaterako. Hektareko 900 eta 1.800

euro arteko laguntzak izango dira, eta basoak barrizteko lanak %100 lagunduko ditue. Lotutako akordioa "oso positiboki" baloratu dau Euskadiko Basogintza Elkarteek Konfederakundeak. ■ A.B.

Botatako arbolak kentzera dagoz bideratuta adostutako diru-laguntzak

Kalteak oso zabaldua dagoz EAEn, baina Bizkaia ei da kaltetuena

Erralderi jagokon laguntzaz galdetu dau Aralarrek

Erralde hiltegiak diru-laguntzarik zergaitik ez dauen jaso argitu daian Bizkaiko Nekazaritza diputatuaren agerraldia eskatu dau Aralarrek. Iosu Murgia Bizkaiko Batzar Nagusietako ordezkariaren berbetan, "Erralderi ez jako aspaldi berba emondako diru-laguntza bideratu". Horri "oso larria" deritzo, eta "beharrezkoa" batzorderatzeari ahalik eta xehetasun handienak emoteari. Zenbateko laguntza jagokon eta noiz eta zelan jasoko dauen be galdetu dau. ■ A.B.

Zenbat diru jagokon eta noiz eta zelan jasoko dauen galdetu dabe

■ kolaborazioa



Ainhoa Iturbe
EHNE sindikatua

Baserrietan EREa

Krisia gora eta krisia behera dabilta munduko finantzari guztiak, eta langabezia gora langabezia behera gabiltza herritarrok aspaldi honetan, krisiari eta langabeziari nola egin aurre asmatu ezinik. Batzuk hurrengo yatea erosterik izango ote duten, eta besteok hipotekari erantzuterik izango ote dugun; bakoitzak bereari ekiten dio.

Arlote ospea izan arren, baserriarrok aspaldi ikasia dugu labore bakarra lantzea, dena karta batera jokatzera, oso arriskutsua dela; gauzak ondo doazenean, oso ondo doaz, baina haziak, lurra, euria, eguzkia edo dena delakoa okertzen denean, dena doa pikutara.

Hori da orain gertatzen ari dena, ia dena eraikuntzaren eta automozioaren monolaborantzara zuzendu da, eta dena ondo joan den bitartean kotxeak egin eta saldu, egin eta saldu; etxeak egin eta saldu, egin eta saldu, nahiz milaka batzuk hutsik egon...

Baserriarrok aspaldi ikasi dugu monolaborantza oso arriskutsua izan daitekeela

Herritarrok orokorrean ederto baten bizi izan gara urteotan, eta jauntxoek milaka milioi irabazi dituzte gure kontura. Baina egoera okertu denean... ai ama! Hemen gabiltza estu eta larri.

Baserriarroz, ostera, ez da kontu berria estu eta larri ibiltzea. Urte asko dira baserriak, etengabeko EREa baino, benetako desagertzea sufritzen duela. Eta ez pentsa baserria bukolismoagatik defenditzen dugunik. Baserriarroz desagertzen diren milaka lanpostu desagertu dira Bizkaian bakarrik, kutsadura pila bat sortzen dugu kanpotik jatekoa ekartzeko, honek sekulako dirutza Euskal Herriatik multinazionalentara alde egitea suposatzen du eta, hau dena gutxi balitz, jaten dugun kalitate eskaseko janaria munduko beste baserriarroz lepora jaten dugu.

Ez al da sasoi sistema hau aldatzeko ERE?

> BERRIZ

Codipauton elkarretaratzeekin jarraitzen dabe

Enpresako zuzendaritzak hartutako neurrien aurrean guztiz kontrako jarrera agertzeko, elkarretaratzeak egiten dihardue Berrizko Eitua poligonoko Codipauto enpresako beharginek. Urriaz geroztik, enplegu erregulazino espediente martxan jarri dabe lanaldia erdira jaitsiz. Egunero egiten ditue elkarretaratzeak beharginek, 13:30etik 14:00etara, egoera salatzen.

Enpresa lehiaketa egoeran dagoela dino ELAk eta soldadak zor dituela. Horrezaz gainera, "16 kaleratze nahierara egin eta urtea amaitu arteko enplegu erregulazino espediente barri bat planteatu dabe, lanaldia %40ra jaitsiz". "Kaleratze nahitaezko eta traumatikoa" lan-legediko neurri gogorrena dela dino, eta langile denak izango dituela kontra. ■ A.B.



Egunero egiten ditue elkarretaratzeak Codipauto enpresan, egoera salatzen. Iban Gorriti



MINKENDU

MASAJEA, AKUPUNTURA
(orratz gabe ere) ETA
MINAREN AURKAKO
TERAPIAK

Alberto Murua
Andra Mari, 18 • 48200 DURANGO
tf. 662 270 770



**EXCAVACIONES
JON**

NOTA GUZTITARGO INDIKATU
HONDAKIN BERRIA

Jon Garitagoitia Gallastegi

PAGURRUA, 10 • 48100 - 48100 MALLAIA
TEL: 943 17 20 24 • FAX: 943 17 20 24



KULTURA[>]



Judit Fernandez

MUSIKA > KONTZERTUA

Jazz eran eskainitako kanta ezagunak

Iñaki Salvador eta taldearen *Te doy una canción* proiektuaren emanaldia izan zen Durangoko San Agustin kultur gunean joan zen zapatu iluntzean. Musika arloko beste hainbat egitasmorekin batera, piano-jotzaile donostiarrak martxan duenetako bat da *Te doy una canción*.

Ainara Ortegaren ahotsean, Javier Mayor de la Iglesia kontrabaxuan eta Asier Oleaga baterian ditu Iñaki Salvadorren pianoak kontzertu hauetan lagunak, eta nahasketa horretatik sortzen dira ezagun diren hainbat kanturen bertsio bereziok: jazz eran eskaintzen dituzte zuzeneko emanaldiotan kantautoreen lanak.

Serraten *Mediterraneo*, Pablo Milanesen *De qué callada manera*, Benito Lertxundiren *Bizkaia Maite* eta Mikel Laboaren *Txoria txori* kantak eskaini zituzten, besteak beste. Abesti herrikoi zenbait, eta Antonio Carlos Jobim-en eta Silvio Rodriguezen lanak ere jazz ikutuarekin ematen dituzte. Guztiak, lau musikarion elkarlan eta uztartzetik sortutakoak.

Iñaki Salvador musikariarentzat bereziak eta gogokoak diren kantok jazz eran eskaintzeko, musikarien arteko komunikaziorik atek zabaltzea dela sekretua diote. Durangoko oholtza gainean Ana Pimienta eta Asier Hernandez izan ziren poemak errezitatzen, musikariak lagunduz. ■ I.E.

12 > Emakumea argazki erakusketetara

Berriz eta Elorrioko kultur etxeetan, argazkietan emakumeak agertzen dituzten lanen erakusketa bi ipini dituzte datozen egunetarako ikusgai.



13 > Maiaren 'Bidaia Intimoak'

Korrikaren 'Ongi Etorri' lemaen harira, Jon Maia bertsolari eta idazleak zuzendu duen *Bidaia Intimoak* lana emango dute Plateruenean.

MUSIKA > KONTZERTUA

Gitarra eta kutxa flamenkoaz, dantzarako aitzakia bilatzen

Martxoaren 13an izango da La Pegatina talde kataluniarra Plateruenean

Durangotik Ondarroara eta handik Galiziako hainbat herritara joango da La Pegatina taldea kontzertuak eskaintzera, abuztura arte lotuak baitituzte hainbat emanaldi. Martxoaren 13an izango dute Platerueneko zita.

Via Mandarin Tour biran, iazko azaroan Bartzelonako La Atlantida estudioan grabatzeari ekin eta urtarrilean amaitu duten disko berriko kantak aurkezten dihardu taldeak, herririk herri, 2009ko hasiera honetan.

Disko berriaren aurkezpen bira egiten dihardute

Kontzertuetan, entzuleekin jai-giroa sortzeko, oholtza gaineko eta parekoen arteko komunikazioa sustatzea da La Pegatinaren funtsa, eta Kataluniako rumbaren erritmoa baliatzen dute horretarako oinarri moduan.

Rumba erritmo alai eta bizia oinarri hartuta, gitarra, kutxa flamenkoa eta ahotsa dira La Pegatina taldearen zutabe: taldea sortu zutenean horiexek ziren oholtza gainean baturiko taldekideen tresnak; Via Mandarin Tour birarako, baina, bateria, soinua eta tronpetak ere gehitu zaizkie.

Kontzertuetan dantzarako gogoazaten duten musikazaleen gustuko izango den Kataluniako La Pegatina: datorren barikurako agendako hitzordua. ■ I.E.



ARGAZKIGINTZA > ERAKUSKETA

Emakumeak agertzen dituzten erakusketa bi Durangaldean

Elorrion eta Berrizen daude bisitariei zabalik argazki erakusketa biok

Emakumeek landa inguruan betetzen duten rola ondoen islatzen duten argazkiak aukeratzeko landa garapenerako Urkiola elkarteak iaz antolatutako lehiaketara aurkeztutako lanen erakusketa dago Berrizko kultur etxeko sarerako erakusketa gunean ikusgai. Tatiana eta Ana Carreras ahizpen lan irabazlearekin, Durangaldeko eta Lea Artibaiko beste parte-hartzaileen artean ere badaude bilduta.

Iazko urrira arte izan zuten Durangaldeko eta Lea Artibaiko argazkizaleek nekazal guneetan emakumeen presentzia eta lana islatzen duten argazkiak estreinakoz antolatutako lehiaketara bidaltzeko aukera. Lehiaketa hartako ekarpenak Berrizko kultur etxean ikusgai dituzten argazkiak dira; Ana Carreras Moronatti eta Tatiana Carreras ahizpa mañariarrek irabazi zituzten lehenengo eta hirugarren sariak, eta Garaiko Jesus Mari Arruabarrenak jaso zuen bigarrena. Durangaldeko parte-hartzaile baten argazkirik onenaren saria, aldiz, J.F. Loroño Dudagoitiak jaso zuen.

ditugu ikusgai: munduan zehar topatu dituen emakumeen irudiak. Valentziako El Mundo egunkarian argazkilari diharduen eta 2006 urtean kirolen atalean World Press Photo lehiaketan hirugarren saria jaso zuen Benito Pajaresen berbetan, "Hegoaldeko emakume guztiei zuzenduriko omenaldia dira argazkiok". Munduan zehar ezagutu dituen emakumeen ahalegina eta lana eskertzeko modu ditu argazkiak.

Urkiola elkartearen lehiaketako argazkiak ikusgai Berrizen

Munduaren hegoaldeko herrialdeetako emakumeen irudiak

Benito Pajaresen lana Elorrioko Iturri kultur etxean

Emakumea munduan
Elorrioko Iturri kultur etxean, gaur hasita ikusgai dagoena Benito Pajares argazkilariaren lana biltzen duen *Emakumea munduan* izeneko erakusketa da. Berrizen erakusten dituzten argazkietan hurbileko paisaia eta emakumeak ikusi bagenitzake, Elorrion Benito Pajaresek munduan zehar egindako bidaletan egindako argazkiak

Elorrioko Iturri batutako argazkietan, milioika emakumeen eguneroko bizitza islatzen duten irudiak daude: Mali, Mozambique, Etiopia, Filipinas, Niger, Senegal, Camboya eta Indiako emakumeen aurpegiak eta eguneroko zailtasunak erakusten dituzten irudien bilduma. ■ I.E.

GEURE DURANGALDEA



Durango

Jon Irazabal
Gerediagako kidea

Zabaldu dugu Larrasoloetako egoitza. Berriz Durango... Berriz, beste garai batzuetan ere Durango izan garelako. Hasierako garaietan Komentukalen izan genuen alokatutako lonja batean bulegoa. Nik garai haiek ez nituen ezagutu, baina bai beste bulego ospetsu bat: Goienkalekoa.

1982an Gerediagan lanean hasi nintzenean Astolako etxeko konponketa-lanak zirela-eta erabaki genuen bulegotzat Durangoko Goienkalen genuen etxea erabiltzea. Etxe hori 1970eko hamarkada bukaeran erosi zuten, elkarte Durango bultzatzeko asmoarekin.

Aldakuntza garaia etorri zen, eta asmo handiak zeuzkaten juntakide eta bazkide askok alderdi politikoetara eta sindikatuetara bideratu zituzten euren lanak, eta elkarte ia desagertu egin zen: Durango etxea hutsik eta erosteko eskatutako mailegua jaberik gabe.

1982an bertan finkatu nuen/genuen bulegoa. Lurrean ez zegoen metro karratu bat nibelean, altzairuak jartzeko altzagarriak jarri behar ziren, eta ez txikiak. Telefonorik ez zegoen. Deiak goizeko lehen orduan edo eguerdian etxean jasotzen nituen. Premiazkoa zenean, Hitz liburu-dendara joaten ginen. Zenbat bider abusatu dugun Nekaneren borondate onaz...

Baina etxea Gerediagaren egoitza baino zerbait gehiago zen. Denei zabalik zegoen. Bertatik irten ziren *Ibaizabal*, *Txistu y Tamboril* eta *Mikeldi*. Bertan burutu ziren hainbat batzar, lan eta abar; adibidez, hasierako Durango Irratia sortzeko lehenengo batzarrak. Momentu batzuetan ez genekien norik zituen etxeko giltzak ere, eta orduan ateko sarraila aldatu eta saiatzen ginen kontrol minimo bat izaten. Benetan, gure herriko garai bateko historiaren lekuko izan genuen etxe txiki hura. 1987an joan ginen berriz Astolara, eta mailegua ordaintzeko, etxea saldu beharra izan genuen eta orduan bukatu zen hango "mobida". Espero dut Larrasoloetako etxea, hura bezala, etxe bizia izatea.



A.C. Moronatti



A.C. Moronatti

DOKUMENTALA > ELKARRIZKETA

Korrikaren kanta idazteko enkargua ere egin dizu AEK-k. Zelan sortu da dokumentala zuzentzeko aukera?

Iazko udan egin zidaten AEK eta Korrikak kanta eta dokumentala egiteko eskaintza: Korrikaren lema zein izango zen azaldu zidaten, eta zertan lagundu nezakeen galdetu. Nire perfilaria egokia zela ikusi zuten lema hori lantzeko; nire gurasoak kanpotik etorriak direla bazekitelako, eta nire familiaren historia ere integrazio historia bat izan delako. Gai horren bueltan nobela bat idatzia dut, eta hortik etorri zen dokumental hau osatzeko ideia.

“Nire familiarena ere emigrazio eta integrazio historia izan da”

Zer ideia izan da lanaren atzean egon dena?

Zenbait jenderen historia kontatu nahi nuen, euskarara nola iritsi diren azalduz. Bidaiaren kontzeptutik eta terminologia-tik euskararaino nola iritsi diren bidaiaren kontzeptuan kontatu nahi nuen. Hizkuntza komunikatzeko eta kanpora begirako zerbait da, baina, era berean, oso intimoa ere bada: gure barruan daukaguna. Euskara ikasten duenarentzat, bere bizitzaren parte da euskara. Gure pentsamendu eta sentimenduak intimoak dira, eta hizkuntza batean dira. Bidaia eta intimitate tonu batean kontatzea pentsatu dut.

“Hizkuntza zerbait oso intimoa da: barruan duguna”

Euskarara etorri diren lau lagunaren historiak dira dokumentalaren ardatza...

Erabaki genuen lau perfil izan zitezkeela interesgarriak, aurtengo Korrikaren *Ongi Etorri* lemaaren haritik: Ongi etorri, batetik, etorkinak (kanpotik etorri eta integrazio bide bezala euskara ikasi dutenak), eta, bestetik, bertakoak izanik eta ama hizkuntza euskara izanik, galdu eta berreskuratu duten bi pertsona. Lau perfil horien bila hainbat elkarrizketa egin genituen historia horrekin bat zetozen eta hori transmititzen asmatuko zuten pertsonak aurkitzeko. Azkenean, lau aukeratu genituen, eta oso pozik gaude.

Lagun horiek euskararekin duten harremana jasotzen da dokumentalean?

Bai, hari nagusia bakoitzaren bizitzaren kontakizuna da, baina ez gara euskarara bakarrik mugatzen: azkenean, dena da

“Nire perfilaria egokia iritzi zioten aurtengo lema landu ahal izateko”

16. Korrikaren ‘Ongi Etorri’ lema oinarrituta, **Jon Maia** bertsolari eta idazleak zuzendu duen ‘Bidaia Intimoak’ dokumentala eskainiko dute dute martxoaren 12an, 20:00etan, Plateruenean. Lau lagunaren biografiak eta euskararekiko harremanak jasotzen ditu lanak.



Judit Fernandez

bat, eta ikusten dena da jende horren bizitzan, pertsonalki, euskarak funtzio iraultzailea izan duela: beraien bizitza aldatu egin da euskararekin; aberastu egin da eta zabaldu egin da. Eta oso lotuta dago bakoitzaren biografiarekin.

Etorkinak eta bertakoak...

Etorkinen kasuan saiatu gara beraien bidaiaren osoa egiten: beraien jaioterritik honaino. Horretarako, Parisera eta Ferrolera joan gara grabatzera. Eta bertako kasuan, beraien aurreragoko belaunaldietara jo dugu ama hizkuntzaren bila, eta nola izan den galtze-prozesua eta berreskuratze-prozesua jasotzera: aiton-amonengana, jatorriko baserri eta herrietara.

Idazten, kantak idazten baduzu esperientzia, baina dokumentalak ekoizten lehenengo esperientzia izan da esperientzia?

Berria izan da, nahiz eta azken urte hauetan ikus-entzunezkoekin harremanetan nabilen, gidioak egiten. Hala ere, lehenengo aldian izan da zuzendari eta gidoiari bezala halako ardurahartu dudana. Oso aberasga-

ria izan da niretzat, eta oso interesgarria. Ez da gauza bera irakurria izateko idaztea ala ikusia izateko idaztea, eta klabe batzuk agertzen saiatu naiz. Edertasuna bilatzen ere bai. Ez bakarrik lau testigantza bildu eta aurkeztu, baizik eta irudi aldetik poetika bat edo edertasun bat bilatzen, eta hori ahalik eta erarik politenean transmititzen.

“Irudi aldetik poetika edo edertasun bat bilatu dugu”

Oinezean doan jendea agertzen da trailerrean...

Pausoa metafora bat da: bidaiaren sentsazioa eragiteko. Euskara ez dut hartu hizkuntza bat bezala bakarrik; leku fisiko bat bezala ere hartu dut, sentimenduen mapa bat osatuz. Oinez ibiltzeak, edo trenak, bidaiak eta abentura bat islatzen dute. Jende askok egin behar izan duen ahalegin horri, bidai horri, omenaldia egiten zaio *Bidaia Intimoak* lanean.

Zure familiak egin zuen halako bidaiak, eta hainbeste etorkinek egiten dute gaur egun. Ez al gara esfortzu horretaz ohartzen?

Nik uste dut ez dela horren irakurketa zehatz edo ganorazkoa egin. Etorri zirenekiko aurreiritzi asko izan da: Francoren garaian etorri zirenekiko klitxe asko eta estereotipo asko egon da; askotan negatiboak, gainera. Etorri ziren milaka horietatik askok euren bizitzan esfortzu pertsonal handia egin du hizkuntza, euskara, bereganatu eta integratzeko. Gaur egungo errealitate kultural eta politikoa asko garai hartatik datoz: integrazio falta batetik.

Istoria intimo horien zertzeladaren bat eman diezagukezu?

Tereixa orain 30 urte inguru Galiziatik etorri zen emakumea da: beretzat euskaraz ikastea bere identitatea mantentzeko modu bat da. Rami oraingo etorkin bat da: Parisen euskara ikasten hasi zen eta orain Goizuetan bizi den tuarega. Jesus Marik diktadura garaian eta 32 urteko Michelle lapurtarrak hezkuntza sistemaren ondorioz galdu zuten euskara. ■ I.E.

“Euskara leku fisiko lez hartu dut, ez hizkuntza bezala bakarrik”

“Oso aberasgarria eta interesgarria izan da lan hau egiteko aukera izatea”

“Etorkinen kasuan, euren bidaiak egin dugu: jaioterritik honaino”

ANTZERKIA > EMANALDIA



Egunerokotasuneko lau gurutzada antzeztuz

Berrizko kultur etxean, gaur gauean izango da 'Cruzadas Cotidianas' antzezlaren emanaldia

Emakumeen nazioarteko egunaren harira antolatutako ekitaldien artean, Durangaldean ditugun hitzorduetako bat da gaur Berrizko kultur etxeko: Cristina Castillo antzezlea izango da Berrizko oholtza gainean, lau emakumeren istorioak antzeztuz.

Ikuspuntu umoretsu batetik lantzen du antzezlanean daramagun bizimodu kaotikoari buruzko gogoeta orain hamarkada bi La Trapera antzerki taldea martxan ipini zuen antzezleak. Orain urte bi egin zuen Castillo berak sor-

Cristina Castillo da antzezlanean aktore bakarra

Domekan bertso saioa izango da Berrizko kultur etxean

tutako antzezlaren baten lehenengo emanaldia: *Ser o no ser visible* lana izan zen hura, eta egile eta antzezle, biak egin zituen orduan ere Castillo. Iaz estreinatutako *Cruzadas Cotidianas* lanean ere egile eta antzezle izan da.

Bizimodu eta adin oso desberdinak dituzten lagunak, Maria, Isabel, Carola eta Marta dira egungo emakumeen errealitatea erakusten duten istorioen protagonistak: zahartzarora bizi dutenak, emigratu behar izan dutenak edo estresatuta bizi direnak.

Martxoaren 8ko saioa

Emakumearen Nazioarteko Egunean bertan, Miren Amuriza, Onintza Enbeita, Amaia Agirre, Iratxe Ibarra, Maddalen Arzallus eta Erika Lagoma arituko dira, 19:00etan hasita, Maite Berriozabal berriztarraren gaiari erantzuten, martxoaren 8ko saioan. ■ I.E.

LITERATURA > IPUIN KONTAKETA

Ahoz eta margoekin kontatutakoa

Hileko azken zapatuetan egiten dituzte Durangoko Liburutegian 3 eta 5 urte bitarteko umeei zuzenduriko ipuin kontaketa saioak. Haurrentzako Liburutegiko hitzordua 17:00etan izaten da, eta 17:30ean, berriz, 6 urtetik gorakoentzako tartea.

Haurrek adi-adi entzuten dituzte ipuin kontalarien saioak

Eskumako irudian ikusten denez, ahotsa eta pintura ere kontalari izan ziren haurrei zuzenduriko saioan: berbak eta koloreak, formak eta tonuak eskaini zizkieten Txomin eta Peruk. Hurrengo saioa martxoaren 28an Amaia Arriaranekin izango da.

Durangoko Liburutegian baina, haurrentzat bakarrik ez, ipuinak helduentzat ere oso interes-



Judit Fernandez

garri eta aberasgarri suertatu daitezkeela sinetsita, hileko azken zapatuetan ere, 20:00etan izaten dira *Munduko Ahotsak* zikloaren barneko ipuin kontaketa saioak. Iragan zapatuko zitan, Kubako Aldo Mendez izan

Amaia Arriaran kontalariaren saioa izango da martxoan

zen gonbidatua. Peruko Mercedes Carrion aritzen urtarrilean Liburutegian, eta Mexikoko Martha Escudero izango da martxoaren 28an bere imajinaziorako proposamenekin. Ahozko narratzaile lez aurkezten du bere

burua Mexiko Hirian jaio zen eta orain Bartzelonan bizi den Martha Escudero. Bere herrialdeko mito, kondaira eta ipuinak erabiltzen ditu saioetan ahotan, entzulego helduari zuzenduriko istorioetan. ■ I.E.

PLATERUENA Durangoko Kafe Antzokia

www.plateruena.net

MARTXOAK 7 19:00etan
DANTZALDI ERROMERIA
AIKO TALDEA.
DANTZALDI IBILTARIA 2009. Sarrera doan.

MARTXOAK 12 20:00etan
BIDAIA INTIMOAK
Zuzendaria, Jon Maia
DOKUMENTALA. Sarrera doan.

MARTXOAK 13 22:00etan
LA PEGATINA (PPCC) + DJ BULL (EH)
LA MANDARINA TOUR 2009
KONTZERTUA. Sarrera: 6-8 euro.

Eguneko menua astelehenetik larunbatera
Landako etorbidea, 4a 48200 Durango Tel.: 946 030 300

Azken mendeko Durangoko irudiak behar ditugu

ERAKUSKETA bat eta DOKUMENTAL bat egiteko.

Proiektuaren bultzatzaileek hitza ematen dute material guztia jabee egoera onean itzuliko zaiela.

Proiektu artistikoa: "DURANGO: HISTORIA DE UN RÍO"

Durangoko Udaleko Arte Sorkuntzarako Bekak babestutako proiektua

San Agustin KULTUR GUNEA DURANGOKO UDALA



anboto astekariak Eusko Labelarekin batera saski bat zozketatuko dau hilero



Goi-mailako
elikagaiak
Alimentos de
calidad superior



zozketa

Arabako babarrun kilo 1, "Ibarrako Piparrak" pote 1, Ezti pote 1, Idiazabal gazta erdi, "Bizkaiko Txakolina" botila 1, "Arabar Errioxako Ardoa" botila 1, Arabar Errioxako olio birjin botila 1, Txakolin-bonboi kutxa 1 eta 30 €-ko txartel 1 Euskal Okelagatik, Euskal Esne Bildotsagatik edo Euskal Baserriko Oilaskoagatik trukatzeko.

**Zenbat eta gehiago bialdu
orduan eta aukera gehiago**

Bidali edozein Label produkturen etiketa, Anboto astekarian argitaratzen den Label txartelagaz batera (31. orrialdean hamabostero), hurrengo helbidera:

Erref.: "Eusko Label Saskia"



Anboto Astekaria • Santana, 6 • 48200 Durango

Emaitza orokorren ispilu izan da Durangaldea

EAJk lortu dau botorik gehien, eta PSE-EE eta Aralarrek gora egin dabe. PPK, EBk eta EAK behera egin dabe nabarmen, eta baliobako botoak 4.000tik gora izan dira. Abstentzinoa %25,07an kokatu da.

EUSKO LEGEBILTZARRERAKO EMAITZAK

	ERROLDA		ABSTENTZIOA		BALIOBAKOAK		EAJ	EA	EAJ-EA	PSE-EE		PP		ARALAR		EB		UPD
	2009	2009	2005	2009	2005	2009	2009	2005	2009	2005	2009	2005	2009	2005	2009	2005	2009	
ABADINO	5.857	%35,72	%32,00	594	10	1.301	73	1512	970	780	365	557	273	159	100	205	11	
ATXONDO	1.203	%31,75	%27,64	204	9	376	10	410	118	106	27	54	62	28	14	23	-	
BERRIZ	3.869	%33,86	%29,57	333	11	1.008	76	1.158	611	480	185	295	202	116	60	134	23	
DURANGO	21.633	%31,70	%28,93	1.490	32	5.898	287	6.561	3.339	2.646	1.499	2.172	1.387	599	468	868	152	
ELORRIO	5.903	%32,34	%27,59	796	12	1.488	105	1.792	725	649	301	458	431	257	84	221	13	
GARAI	255	%19,61	%11,93	37	2	122	4	148	10	6	4	4	25	5	-	4	1	
IURRETA	3.140	%34,68	%31,46	293	13	753	23	872	537	516	222	334	119	63	52	98	13	
IZURTZA	225	%25,33	%14,35	57	3	91	4	107	5	11	2	5	5	2	1	4	-	
MALLABIA	988	%35,12	%26,06	178	1	271	17	339	96	72	27	44	37	13	8	27	2	
MANARIA	383	%22,72	%20,77	76	-	163	10	181	12	9	5	10	24	10	4	10	-	
OTXANDIO	996	%25,10	%18,52	236	-	329	29	393	41	37	32	52	61	40	15	14	2	
ZALDIBAR	2.378	%36,00	%32,10	214	5	519	49	602	423	369	164	223	71	40	32	55	16	
guztira	46.830	%30,3	%25,07	4.508	98	12.319	687	14.075	6.887	5.681	2.833	4.208	2.697	1.332	838	1.663	233	



Etorkizuneko egoera politikoan eragin leiken eguna izan zen martxoaren 1a; Euskal Autonomia Erkidegoko Lehendakartzarako hauteskundearen eguna, hain zuzen be. Ez zen guztiz bete sondeok esaten ebena, baina aldaketa ugari emon zela esan leiteke. Alde batetik, ez dago argi nor izango den lehendakari, eta ondorioz gobernu eratzaile: Ibarretxe edo Lopez. Bestetik, alderdi guztien bozka kopuruetan emon dira gora-beherak, hausnarketarako bide emonez. Horrez gain, emaitzak ilegalizazioak baldintzaturik etorri dira.

Durangaldeari jagokonez, emaitza orokorren ispilu dela esan leiteke. Erkidegoan alderdiek izan dituen joerak gure eskualdean be islatu dira, ia-ia %100ean. EAJ izan da Durangaldean boto gehien lortu dauen alderdia: 12.319. Atzetik dituen guztiei alde handia atera deutse, baina aurtengo botoak orain dela lau urte EAgaz eskuraturiko emaitzekin alderatuta, behera egin dau Urkulluren taldeak.

PSE-EE da bigarren indarra eskualdean. Gasteizko legebiltzarrerara begira izan dauen igoraren antzera, gurean be gora egin dau Lopezen alderdiak: guztira, 6.887 boto jaso ditu; 2005ean baino 1.206 gehiago. Aralarrek bikoiztu egin ditu bere botoak, maila orokorrean zein eskual-

Ez zen guztiz bete sondeok esaten ebena, baina aldaketa ugari emon zela esan leiteke

Erkidegoan alderdiek izan dituen joerak gure eskualdean be islatu dira

dean. Parlamentuan hiru jarleku gehiago izango ditu, eta horreetako bat Dani Maeztu Durangoko zinegotziak beteko dau.

Alderdi batzuek gora egin daben bitartean, beste batzuek beherantzako bidea hartu dabe. Horixe da PP, EB eta EAren kasua. PP eta EBren boto-emaile kopuruak erdira jaitzi dira Durangaldean. Oro har izandako beherakada nabarmena izan da, eta Ezker Batuko Javier Madrazok dimisinoa aurkeztu dau. Gauza bera gertatu jako Ziarretaren alderdiari. Ziarretak idazkari nagusi kargua itzi dau, jarlekue-tan behintzat galera handia izan dau-eta bere taldeak.

Lehenengo aldiak

Legegintzaldi barrian panorama asko aldatu leiteke. Hona hemen datu batzuk:

EAJklehenengo biderrez galdu leike Lehendakartzita; PSE-EEk, alderantziz, lehenengo eskuratu leike.

Horretarako, erabakiorra izan leiteke UPD alderdia; estreinakoz Legebiltzarrean izango da, aulki batez. Durangaldean, 152 boto lortu ditu Rosa Diezen alderdi barriak.

Legealdi hau, gainera, ezker abertzalea kanpoan egongo den lehen aldia izango da, milaka bozka eskuratu arren. Gurean, baliobako botoak 4.508 izan dira.



HAUTESKUNDEAK

Emaitzen ondoren, hausnartu eta erabakiak hartzeko sasoa dator

Gobernua eratzeko "konfiantza eta ilusinoagaz" dago EAJ



Ana Otadui



EAJk irabazi ditu hauteskundeak, eta Durangaldean be berak jaso dau botorik gehien. Bizkaiko zerrendan joan den Ana Otadui Elorrioko zinegotziak boto-emaileen konfiantza eskertu dau.

Eskualdeko emaitzak oso ontzat jo ditu Otadui, eta Elorriora begiratu dau: lehen indarra izan da EAJ, "eroldaren beherakada eta abstentzinoa" hor izan arren. Bestalde, bere ustez "Ibarretxe izango da lehendakaria; berari jagoko, herriak horrela erabaki dauelako". Alderdia "ilusinoz eta batuta" dagoe-la azpimarratu dau.

"Patxi Lopezek lehendakari izateko aukerak ditu"



Pilar Ríos



Hauteskundeetako datuei erreparatuta, PSE-EEK balorazino "oso positiboa" egin dau. "Guk gora egin dogun modu berean, hirukoak behera egin dau", azaldu dau Pilar Ríos Durangoko zinegotziak. "2005eko hauteskundeetako datuekin alderatuta, 2.646 bototik 3.339ra pasatu gara Durangon".

EAEko datuak kontuan hartuta, orain "itxaron beharra" dagoe-la deritzo Ríosek. "Boto gehien jaso dauenak ekin deutse elkarrizketei. Patxi Lopez lehendakari izateko aurkeztu behar delakoan gagoz, eta aukerak daukazela deritzogu".

"PPk esku-hartze erabakigarria dau gobernu eraketan"



Juan Jose Gastañazatorre



Juan Jose Gastañazatorre zinegotziaren berbatan, euskal gizarteak, oro har, "aldaketaren aldeko botoa emon dau", eta marko barrian PPren botoak "erabakigarri" bihurtu dira Eusko Jaurlaritzaren eraketarako. Horrez gainera, osatzekotan direna Batasuna bako eta gehiengo abertzalerik bako Parlamentua izango dela azpimarratu dau.

Datozen lau urteetako erronka nagusiei aurre egiteko, "politika egiteko modua aldatu" beharko dela dino: "Askatasunen defentsa eta krisi ekonomikoa dira izango doguzen zeregin nagusiak".

"Aralarren proiektua sendotuz doala dinoe emaitzek"



Dani Maeztu



Durangoko zinegotzi Dani Maeztuk Gasteizko parlamentuan eserlekua eskuratu dau. "Aralarrek emaitza oso onak lortu ditu, bai orokorrean bai Durangalde mailan". Orain zortzi urte "zerotik" abiatutako proiektua "sendotzen" doala gaineratu dau durangarrak. Orain sei urte Bizkaian zinegotzi bakarra zeukiela eta orain, barriz, parlamentuan lau ordezkari daukiezela gogorarazo dau Maeztuk. Emaitza horreek "ez direla euskal gizartearen isla" deritzo, "aukera bat ilegalizatuta dagoe-lako", eta, "parte hartu daien bidea zabaldu" behar dela.

"Oso emaitza txarrak dira; egoera barrutik aztertu behar dogu"



Jose Luis Zubillaga



Jose Luis Zubillagak ez dau ezkutatu hauteskundeetan lortutako emaitza "oso txarra" denik, "desastretik" oso gertu: "Edo ez dogu gure mezua transmititzen asmatu, edo asmatuta be ez dabe konpartitu".

Arrazoi "kolateralak" be ikusten ditu: "Batetik EAJ eta PSE-EEK bipartidismoaren estrategia erabiltzen jakin dabe. Bestetik, EAJk Gobernuko urteei errentagarritasuna atera deutse, eta guk eta EAK ez dogu horretan asmatu. Azkenik, ilegalizatutako 100.000 botoek Eusko Jaurlaritzaren antolakuntza desnaturalizatu dabe".

"Hausnarketa sakona egin beharko dau Eusko Alkartasunak"



Carmen Sampedro



Hauteskundeen emaitzei buruz galdetu deusagunean, "atsekabea" sentitzen dabela dino EAK Zaldibarraren dituen hiru zinegotzien bozeroale Carmen Sampedrok. "Hausnarketa sakona egin beharko dau alderdiak", dino. Beherakada arrazoitzeko, "Patxi Lopez lehendakari izan zeiken beldurrez, jeltzaleei emon deutso botoa askok", eta "alderdikide askok Aralarren aldeko hautua be egin dau". EAK kampaian zehar izan dauen "diskurtsoa monotematikoegia" izan dela eta egoera ekonomikoaz be jardun behar ebela dino Sampedrok.

Legebiltzarkidea lortuta, "pozik" dagoz UPDkoak



Lydia Brancas



Oso pozik agertu da Lydia Brancas, UPD alderdi berriko Bizkaiko zerrendaburua. Bera ez da legebiltzarrean izango, baina Arabako hautagaia den Gorka Maneiro bai.

Durangaldean "hazi" egin da botoetan Espainiako Gorteetarako emaitzekin alderatuta, Brancasen arabera. Durangon, "baleko emaitza" lortu dabela dino. Emaitza orokorrean begiratuta, "balorazino positiboa" egin dau, alderdi barria dela kontuan hartuta. Patxi Lopezen alde egiteko prest dagozela esan dau Brancasek, "politika egiteko moduan aldaketa behar delako".

"Legebiltzarretik kanpo eraiki beharko da alternatiba"

ezker abertzalea

Aitor Sarrionandia



Ezker Abertzaleak orain 15 bat egun izan zituen hauteskundeak, bertako ordezkariaren berbetan, "orduaz erabaki zen Madrilen Gasteizko legebiltzarrean ez zegoela guretzat lekurik". "Independentismoari bidea moztu eta konstituzinoa ezartzea da helburua, eta errepresino eta informazio manipulatu guztia erabili dabe horretarako. Guk halan be lan egiteko gauza garela erakutsi dogu".

"Madrilek jarritako oinarriekin funtzionatuko dau hemendik aurrerako legebiltzarrak, eta handik kanpora eraiki beharko da herri honen alternatiba independentista".

ERITZIA[>]

kolaborazioa

Gutunak @

AHTa eta krisia

Azken urte erdian krisia gora eta behera dabilta komunikabideetan. Baina krisia edukirik gabeko kontzeptua balitz bezala aipatzen dute. "Ahaztu" egiten zaie, nonbait, krisi horrek erantzule politikoak dauzkala zehaztea, izan ere, euren jarri dute martxan orain kolokan dagoen politika ekonomikoa, eta, gainera, ez diote behar bezalako konponbiderik ematen. Dauka-gun egoeraren aurrean, Gasteizko Gobernuak diru publikoa esku pribatuetara bideratu baino ez du egiten, aurrekontuen bidez. Eta aurrekontu horiek, noski, guk denok ordaindutako zergekin egiten dituzte.

Baina gure diruarekin egindako "inbertsio" horien onurak ez zaizkigu guri bueltan etortzen, inbertsioak enpresa pribatuetan egiten direlako. "Inbertsio" horietako bat da Abiadura Handiko Trena. Obra publikotzat mozorrotzen duten arren, hormigoien enpresa pribatuak aberasteko bidea baino ez da. Izan ere, obra publikoa balitz, guztioi eman beharko liguke zerbitzua, baina honezkero ondo dakigu AHTak gutxi batzuei baino ez diela ekarriko onura, beste guztion kontura eta beste guztion kaltetan.

Azken 5 urteotan euskal familien zorrak bikoiztu egin dira. 2008ko urritik hona, 30.000 lanpostu desagertu dira Euskal Herrian. EUSTATen arabera, EAEko 13.000 familiatan kide guztiak langabezia dauka. Eta egoera okerrera doa...

Baina horren aurrean, Gasteizko eta Madrilgo gobernuak eta bertan agintzen duten alderdi politiko guztiek dirutza publikoa alferrik galduko dute AHTa egiten:

-EAEko AHTa (euskalY) eta Nafar korridorea: 9.000 milioi euroko aurrekontua. Obrak egin ahala asko handituko da.

-2009rako EAEko aurrekontuetan 549 milioi euro AHTrako.

Durungaldean ere krisia igartzen hasi gara, inguruko hainbat lantegitan, batez ere:

-Duragaldean 24 enpresa baino gehiagotan lan erregulazioko txostenak onartu dituzte.

-Enpresak ixten dabilta: Sarriopapel, Geodis...

-7.000 langabetu daude (erregulazio txostenetakoak zenbatu gabe).

Eta horren aurrean zer? Ba horren aurrean ere, dirutza xahutuko dute AHTa egiten. Durangon, AHTaren eraikuntza tarte bitan banatuta dago: Abadiño-Durango eta Durango-Zornotza. Eta tarte bietan, guztira, 121 milioi eurotik gora gastatuko dituzte.

Beharbada, hau irakurtzen zabilta bitartean zu ere langabezian zaude, edo lanetik etxera bidali zaituzte egun batzuetarako, edo lanean egon arren arduratuta zaude aurrerantzean gertatuko denarekin.

Baina zuk edo zure ingurukoek egoera hori jasaten duzen bitartean, zergekin ordaintzen duzen dirua ez da inbertitzen zuen onerako, hormigoien enpresek poltsikoak bete ditzaten baino.

Denok ordaintzen dugun diru hori gizartean inbertitu beharko lukete, beharizan sozialei erantzuteko (etxebizitza, hezkuntza, kultura, osasuna, behar-suentzako laguntzak...). Baina horren ordez, gutxi batzuek erabiliko duten AHTa egingo dute, gutxi batzuk aberastu daitezten.

Eta hori guztia zure kontura izango da, zuk euren krisiaren ondorioak sufritzen dituzun bitartean. Zer egingo duzu horren aurrean?

Durungaldeko AHT Gelditu! Elkarlana

Klik batean @



Zamalanak norentzat?

"Matienan Abadiño udaltzainek herritarrei isunak jartzen deusezen bitartean, beste batzuk ez ditueela zamalanen ordutegiak eta baldintzak betetzen" salatu gura izan dau argazki honen bitartez Matienako bizilagun batek. Irudian ikusten denez, ondoan aparkatzeko lekua eduki arren, kamioia errepidean bertan dago zamalanek irauten daben bitartean. "Non ete dagoz udaltzainak?", galdetu deusku.

Zure eritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:
Santa Ana Plaza 6, 48200 Durango - astekaria@anboto.org
Izen-abizenak, telefonoa, helbidea eta NAN
zenbakiagaz batera bialdu behar dira.

Alderdi, elkarte edo taldeko eritziak kide baten izenean sinatuta eta Anbotoren erizpideak jarraituz zuzenduta publikatuko dira.

DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO



Carlos Iglesias

Irtenbide gehiago, berba gitxiago

Egoera ekonomikoaren eraginez, ez diot jaramonik egin hauteskunde kanpainari. Nahikoa daukagu eguneroko bizitzan sortzen zaizkigun arazoak konpontzen, politikoek esaten dituzten guztiez hausnartzen hasteko.

Une egokia da politikari buruzko definizioetako bat gogora ekartzeko: "Irtenbide bakar eta finkoa ez duten gizarteko arazoei modu zibilizatu batean erantzuteko artea da". Artea bai, baina dialektikaren artea, gehiago begiratzeko baitiote azalekoari oinarrian dagoenari baino. Gizatasuna ere zalantzan jartzen dut. Komunikabideek kanpainan egin duten jarraipena ikustea baino ez dago irtenbide gutxi proposatzen dituztela konturatzeko, eta denak "klabea". Politikariei gogorazai behar diegu nahasmenerako joera dutela. Garrantzia benetan zerk duen eta zer nabarmentzen duten bereizten jakin beharko lukete. Orain, inoiz baino gehiago, jendea zer gertatzen ari zaion eta zer arazo dituen begiratu beharko lukete.

Jendea zer gertatzen zaion eta zer arazo dituen begiratu dezatela

Gurean albiste latzak datozkigu egunero. Enplegu-erregulaziora doazen enpresak, ordainketa-etenak, administrazio konkurtsalak, eta, beste kasu batzuetan, itxiera. Duela bi urte milioika euroko irabaziak zituzten merkataritza-sozietateek orain krisiari ezin diotela aurre egin dioskue. Egoera larritzen dabil. Elkartasuna adierazi nahiko nieke hile bukaerara heltzen ez direnei, hipoketa itzelak dituztenei, estatistika ekonomikoan marroiak jaten dituzten langileei...Eta politikoei berba politik alde batera utzi eta irtenbideak bilatzeko eskatuko nieke.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza)
diruz lagundutakoa



anboto
durungaldeko astekaria

Anboto komunikabideak Elkarteak
2009ko martxoaren 6a - 8. urtea - 321 zk.

Laguntzailea:



Eta honako Udal guztiak:

Abadiño	Elorrio	Mallabia
Atxondo	Garai	Mañaria
Berriz	Iurreta	Otxandio
Durango	Izurtza	Zaldibar

Zuzendaria:

Jone Guenetxea.

Erredakzio burua:

Joseba Derteano.

Administrazioa:

Itziar Belar eta Miren Abasolo.

Publizitatea:

Itziar Azula, Goretti

Alonso eta Amaia Huarte.

Erredakzioa:

Aitziber Basauri, Maria Gonzalez.,

Itsaso Esteban, Markel Onandia

Testu zuzentzailea: Igor Elortza.

Maketazioa:

Ainhoa Arizmendiarieta.

Argazkilariak: Iban Gorriti, Judit

Fernandez eta Kepa Aginako.



euskaraz bizi
nahi dugunon
herrira



16. korrika aek
Tutxa-Garrai Its
martxoaren 27tik apirilaren 1era

aek

izan zaitez korrika laguntzailea

12 euroren truke,
garrantzitsuena lortu duzu:

**KORRIKA
LAGUNTZAILEA izatea.**

Honez gain pina eskuratuko duzu eta,
eskaintza orria betez gero, txartelak
ematen dizkizun abantailak ere bai.

www.korrika.org



anboto >
komunikabideak

AGENDA >

> ANBOTOko agendan ezer iragarri gura badozu, agenda@anboto.org helbidera idatzi edo 94 623 25 23 telefonora deitu egiguzu, eguazten eguerdi aurretik.



Martxoaren 6an, 22:00etan

MANIKI SALTSA

Saltoki handi baten, emakumeendako moda baten dauen solairuan hasiko dabe ibilbidea gau baten bizia hartuko daben bost manikiek. Segurtasuneko guardia baten gorpua aurkituko dabe bertan. Esnatu eta egoera barriak sortutako harriduraz, nor diren, egoera barriaren aurrean zer egin leikien eta zaindarien heriotza argitzen saiatuko dira. Mundua den biltoki zorabiagarri eta faltsuari aurre egiteko prestatuko dira... Arriolan izango da, gaur.

ANTZERKIA

ERMUA

» **'Negra' (Teatro Meridional)**, martxoaren 8an, 22:15ean, Lobiano kultur gunean.



14an, Abadiñoeko Gaztetxeak antolatuta. Izena emoteko bertaratu baino ez da egin behar.

BERRIZ

» **Baqueirara eski irteera**, martxoaren 13tik 15era. Izena emateko epea martxoaren 9a artekoa da. Berrizburun (179 euro).

DURANGO

» **Txiki Parka**, Landako erakustazokako 3. moduluan, 17:00etatik 20:00etara. Otsaileko eta martxoko asteburuetan egongo da zabalik, Udaleko Kultura Sailak antolatuta.

» **Zientiaren Kutxa Gunera (Donos-**

tia) urteera, martxoaren 12an, 14:45ean, Udaleko Adinekoen Sailak antolatuta. Izena emateko Nagusien Udal Egoitzara jo leiteke.

DANTZA

DURANGO

» **Dantzaldi erromeria: 'Dantzaldi ibiltaria' (AIKO taldea)**. Martxoaren 7an, 19:00etan, Plateruena kafe antzokian.

» **Dantza tailerra: 'Dantzaldi ibiltaria' (AIKO taldea)**. Martxoaren 10ean, 19:30etik 21:00etara, Plateruenean.

egin, landaketak, gaixotasunak zelan tratatu (94 623 27 30 / 636 451 572 -Unai-).

DURANGO

» **Adinekoendako ikastaroak: 'Argazkigintza digitala', 'Osasun naturalaren tailerra: landare osasungarriak eta prestakinak', 'Landare eta baratzeak ekologikoki haztea', 'Aretoko dantzak', 'Lurrinterapia' eta 'Internet'**. Izena emateko, Adinekoen Udal Egoitzan. (94 620 03 21 / 94 603 00 00 Luz. 1710).

» **Makrobiotika eta Osasunerako sukaldaritza ikastaroa**, martxoaren 14 eta 15ean, apirilaren 25 eta 26an eta maiatzaren 23 eta 24an. Tina Asensioren eskutik emongo dira Artakuso ekodendak eratuako eskolak, Kurutzia ikastolan. Izena emateko eta informazio gehiagorako Artakuso ekodendara jo leiteke edo honako telefonora deitu: 659 990 740 (Oihana).

IURRETA

» **Ikima tailerrak: Laburmetrai tailerra**, martxoaren 6an, 17:30ean, Udal Liburutegian.

IKUS ENTZUN

DURANGO

» **'Bidaia intimoak' dokumentala (Jon Maiak zuzendutakoa)**, martxoaren 12an, 20:00etan, Plateruenean. Korrika16ren baitan.



IPUINAK

ERMUA

» **Ixabel Millet ipuin kontalariaren saioa**, martxoaren 7an, 17:30ean, Lobiano kultur gunean.

LITERATURA

IURRETA

» **Munduko emakumeen literatur tailerra**, maiatzaren 25a bitartean, astelehenean, 18:30etik 20:30era, Udal Liburutegian. Aurretik halan eskatuz gero haurtzaindegi zerbitzua: (94 681 27 26 edo biblioteca@iurreta.net).

» **Ume eta gazteendako irakurketa**

kluba, martxoaren 10ean, Udal Liburutegian: 16:45ean, *Txori kantariak poeta hegalaria* (8-10 urte), eta, 17:45ean *Momo* (10-12 urte).

» **Helduendako irakurketa kluba**, martxoaren 11n, 19:00etan, Liburutegian: *Zulo bat uretan* (Iñigo Aranbarri).

MARTXOAK 8

Emakumearen Nazioarteko Eguna

ABADINO

» **Anboto Azpiko Damak** elkarteak antolatuta ikuskizuna, martxoaren 6an, 18:30ean, Errota kultur etxean; **berdintasunaren aldeko bertso saioa**, 20:00etan Txanporta kultur etxean: **Miren Amuriza, Hodei Iruretagoiena, Maddalen Arzallus, Eñaut Uruburu**. Doakoa da.

» **'Zai beti Zai'** antzezlan, Oihulari Clownen eskutik, martxoaren 8an, 19:00etan, Txanporta kultur etxean.

» **'Dónde está el placer en mi agenda?'** berbaldi tertulia, martxoaren 12an, 18:00etan, Errota kultur etxean. Hizlaria: Clara Perez Wolfram.

BERRIZ

» **'Mujer y política' berbaldia (Rosa Mari Ostogain)**, martxoaren 6an, 18:30ean, Anbulatorio zaharrea. Gure Izarrak elkarteak eraruta.

» **'Cruzadas Cotidianas'**, antzezlan, martxoaren 6an, 22:00etan, Kultur Etxean. Cristina Castillo aktorearen eskutik.



» **'Emakumeen bertso saioa'**, martxoaren 8an, 19:00etan, Kultur Etxean. Bertsolariak: **Miren Amuriza, Onintza Enbeita, Amaia Agirre, Iratxe Ibarra, Maddalen Arzallus** eta **Erika Lagoma**; gai jartzailea: **Maite Berriozabal**.

» **Bilboko Zabalgunean zeharreko bisita gidatua**, martxoaren 8an, Gure Izarrak emakume elkarteak eraruta. Hitzordua 09:30ean egin dabe tren geltokian. Ondoren, **sagardotegi baten bazkaria**. Bilbon, 19:00etan deitutako **manifestazioagaz be egingo dabe gero**.

BESTEAK

ABADINO

» **Sagardotegira irteera** martxoaren

BERRIKO UDALA MARTXOAK

Martxoak 6

Antzerkia: Cruzadas Cotidianas. Kultur etxea. 22:00. Gynkana ez sexista, Institutuan.

Martxoak 7

Ikastaroa: Sexualitatearen alde historikoa. Hasiera. 3 saio. Kultur etxea.

Martxoak 8

Emakume bertsolarien saioa. Kultur etxea. 19:00.

Martxoak 11

Plenoa. Udaletxean. 19:00

Martxoak 13

Haur antzerkia: Beltzitina. Kultur etxea. 17:30.

Martxoak 14

Ikus-entzunezkoa: Frankismoaren biktimei gorazarrea. DVD aurkezpena. Kultur etxea. 19:00.

Martxoak 16

Ikastaroa: Barazki eta kontserbak. Hasiera. 7 saio. Eskolako jantokian. 17:45etik 20:45era.

Martxoak 18

Ikus-entzunezkoa: "Bidaia intimoak". Korrikaren aurkezpena. Kultur etxea. 20:00

Martxoak 26

Hitzaldia: Menpekotasuna duten pertsonen zaintzan, ardura banaketa; Jubilatuen etxea. 17:30.

Martxoak 27

Antzerkia: Putzuak lehortzen. Kultur etxea. 22:00.

Bestelakoak

- Erakusketa: Emakumea Durangaldeko eta Lea-Artibaiko landa ingurunean. Kultur etxean, martxoan.
- Elurretara bidaia: Baqueira. (Martxoaren 13-15). Izen-ematea martxoaren 9a arte.

DEIAK

DURANGALDEA

» **Aisialdirako eskaintza kaleratu dau Ikastolen Elkarteak**. Horren aurrean begiraleak be behar ditue. Horretan jardun gura daben gazteek apirilaren 5a arte daukie izena emotea. Euskalduna eta aisialdian esperientzia daukana izatea beharrezkoa da. Baita ingelesa menperatzea be, ingeles udalekuen kasuan. Kontuan hartuko dira: aisialdiko begirale/zuzendari titulua edukitzea, sorosle, elikagaien menperatzaile eta abarren titulua izatea eta formazioa zein gaitasun pertsonalak (www.bieiikastola.net / www.ikastola.net)

DURANGO

» **Genero biolentziaren kontrako elkarretaratzea**. Eguenero, 20:00etan, Andra Mariko elizpean. Bilgune Feministak eta Andereak elkarteak deituta.

ERAKUSKETA

ABADINO

» **Emakumearen Nazioarteko Eguneko Kartel Lehiaketan aurkeztu ditueen kartelak**, Errota kultur etxean, martxoaren 16a arte.

IKASTAROAK

ABADINO

» **'Ortugintza ekologikoa'**, martxoaren 4an hasita zortzi asteazkenetan, 17:00etatik 20:00etara, Murueta 6 helbidean, EHNeren bulegoetan. Ortu ekologiko bat zelan jarri martxan irakatsiko dabe: lurraren prestakuntza, hazitegi bat zelan

BERRIKO UDALA

» **'Sexualitatearen alde historikoa, eraldatzailea eta pertsonala'**, Saioa Hernández sexologoaren eskutik (euskaraz), martxoaren 7an 10:00etatik 14:00etara, 13an 17:00etatik 20:30era eta 14an 10:00etatik 14:30era. Izena emon behar da (berdintasuna@berriz.org / 94 682 40 36).

DURANGO

» **'Erraketariak'**, Arte eta Historia Museoa, martxoaren 29a arte.

» **Andragunearen inaugurazioa**, martxoaren 7an. Durangoko emakumei omenaldia, 12:30ean, Pinondo Etxean; 'Martxoak 8 Emakumeen Nazioarteko Eguna' izenburupean Bartolome Ertzilla musika eskolako ikaslen kontzertua 19:00etan, musika eskolaren areto nagusian; **'¿Se puede?' (Mamacrea)** antzezlana, 20:00etan, San Agustin kultur gunean.



» **Lilakrosa**, berdintasunaren aldeko herri-lasterketa, martxoaren 8an, 12:00etan, Ezkurditik irtenda.

» **Bazkaria**, martxoaren 8an, 15:00etan, Txantonesa jatetxean. Txartelak bertan salgai. **Manifestazioa**, 18:00etan, Andra Maritik urtenda. Durangoko Plataforma feministak eratuta.

ELORRIO

» **'Maniquis' (CIA Maniquis)**, martxoaren 6an, 22:00etan, Arriola antzokian.

» **'Emakumeak munduan' argazki erakusketa (Benito Pajares, 2006ko World Press Photo saria)**, martxoaren 26a arte, Iturri kultur etxean.

IURRETA

» **'Esanen Aduanan'**, literatura eta musika emanaldia, martxoaren 6an, 19:30ean, Ibarretxe kultur etxean. Testuak: **Miren Agur**

Meabe, Leire Bilbao, Yolanda Arrieta; musika: Esther Gabiola eta Uritze Laka.

» **Emakumeendako afaria**, martxoaren 7an, 21:30ean, Goiurian. Aurretik, 20:30ean, **martxoaren 8ari buruzko gogoetak**, Ibarretxe kultur etxean. Ondoren, **'Emakume eta gizonezkoen arteko berdintasunaren aldeko argazkia'** aterako dabe.

OTXANDIO

» **Giza-katea**, hilaren 8an, 13:30ean. Gazte Asanbladak eratuta: www.otxandiokogazteasanblada.tk

ZALDIBAR

» **'Quiero llegar a fin de mes', antzezlana (Aztia)**, martxoaren 6an, 22:00etan, herri eskolan.

» **Afaria eta dantzaldia** Ohiergi taldeagaz, martxoaren 7an, 21:30ean, Goierriko auzo etxean.

Brindisa eta aperitiboa, hilaren 8an, Helmugaren egoitzan, 12:30ean.

MUSIKA

ABADINO

» **Doctor's Klub + Kuntur**, martxoaren 6an, 22:00etan, Gaztetxean.

DURANGO

» **Seiren + Manent**, martxoaren 6an, 22:00etan, Plateruenean.



ELORRIO

» **Willis Drummond + Booldseekers** martxoaren 7an, 23:00etan,

Gaztetxean. Gaur, **'El exilio de tus seres de PVC'** obra, 22:00etan.



ZINE-KLUBA

DURANGO

» **'La clase'**, martxoaren 12an, 20:30ean, Zugaza zinemari.

» **Tabira Txiki elkartearen eskutik 'El hombre que hacia milagros' filma**, martxoaren 8an, 17:30ean, San Agustin kultur gunean.

IURRETA

» **'4 meses 3 semanas 2 dias' filma**, martxoaren 10ean, 19:00etan, Ibarretxe kultur etxean. Iurretako Emakumeen Bira Ziklismo Kirol elkarteak eratuta.



Martxoaren 6an, 22:00etan

SEIREN, PLATERUENEAN

2005ean sortutako Seiren taldea izango dogu gaur Plateruena kafe antzokian. Pop-folk doinuak landuz 2007an kaleratutako 'Pertsona baten bila' diskoa da euren lehenengo lana. Igaz oholtzaz oholtza jardun eben lan hori zuzenean defendatzen; oraingoan, bariz, Durangon daukaguz. Eurekin batera, Manent taldea be igongo da taula gainera, euren musika proposamena eskaintzera.

ZINEMA

DURANGO

Zugaza

Más allá de los sueños

Zuzendaria: Vincent Ward
barikua 6: 19:00 / 22:00
zapateria 7: 17:00 / 19:30 / 22:30
domeka 8: 17:00 / 19:30
astelehena 9: 19:00 / 22:00
martitzena 10: 20:00



ELORRIO

Arriola antzokia

Revolutionary Road

Zuzendaria: Sam Mendes
zapateria 7: 22:30
domeka 8: 20:00
astelehena 9: 20:00



Umeendako zinema

El lince perdido

domeka 8: 17:00

ZORNOTZA

Zornotza Aretoa

La clase

Zuzendaria: Laurent Cantet
zapateria 7: 22:00
domeka 8: 20:00
astelehena 9: 20:00



Umeendako zinema

City of Ember

domeka 8: 17:30

BOTIKAK

- Barikua, 6**
09:00-09:00
• Sagastizabal (Askatasun Et. 19 - Durango)
- Zapateria, 7**
09:00-09:00
• SanRoma (Uribarri 5 - Durango)
09:00-13:30 (*14:00)
• Sagastizabal / Gaztelumendi / Unamunzaga / De Diego / Campillo / Balenziaga (Durango)
- Bartolome (Gabiola 2 - Berriz)
- Irigoien (Bixente Kapanaga 3 - Iurreta)*
- Deleuze Jiménez (Erreka 6 - Elorrio)*
09:00-22:00
- Bengoa (Jose Antonio Agirre 1 - Abxondo)
- Domeka, 8**
09:00-09:00
• Gaztelumendi (F.J. Abasolo 2 - Durango)
- Astelehena, 9**
09:00-09:00
• Unamunzaga (Murueta Torre 2C - Durango)
09:00-22:00
• Deleuze Jiménez (Erreka 6 - Elorrio)
- Martitzena, 10**
09:00-09:00
• Mugica (Andra Mari 9 - Durango)
- Eguaztiena, 11**
09:00-09:00
• Irigoien (Bixente Kapanaga 3 - Iurreta)
- Eguena, 12**
09:00-09:00
• Balenciaga (Ezkurdi 8 - Durango)
09:00-22:00
• Bartolome (Gabiola 2 - Berriz)

TELEFONO INTERESGARRIAK

- SOS Deiak.....112**
- DYA94 620 28 00**
- Gurutze Gorria94 681 09 49**
- Osakidetza94 600 72 00**
- Ertzaintza94 466 93 00**
- Suhiltzaileak112**
- GARRAIOAK**
- Euskotren.....902 54 32 10
- Durango94 681 02 32
- Bizkaibus94 448 40 80
- Pesa902 10 12 10
- Continental Auto945 286 466
- TAXIAK**
- Abadiño946 814 470
- Matieta606 459 988
- Durango Geltokia.....946 811 001
- Goco Tour946 202 860
- Tele Taxi944 102 121
- Radio Taxi Bizkaia ..944 269 026
- Elorrio Geltokia946 820 040
- J.L. Uriarte ..670 402 002
- I. Estebez670 678 273
- M Galeano.....946 582 854
- Iurreta946 201 565

- UDALAK**
- Abadiño94 621 55 30
- Atxondo94 682 10 09
- Berriz94 682 45 84
- Durango94 603 00 00
- Elorrio94 658 27 12
- Garai94 681 63 93
- Iurreta94 620 12 00
- Izurtza94 681 35 48
- Mallabia943 17 14 61
- Mañaria94 681 89 98
- Otxandio945 45 00 20
- Zaldibar94 682 70 16
- UDALTZAINGOAK**
- Abadiño94 621 55 33
- Berriz94 682 40 36
- Durango94 603 00 10
- Elorrio94 682 02 18
- Iurreta94 620 08 88
- BESTELAKOAK**
- Arriola94 658 31 92
- San Agustin94 603 00 21
- Zornotza Aretoa94 630 01 68
- Gazte informazioa 94 603 00 30

- Txanporta KE94 620 36 47
- Errota KE94 466 94 16
- Gorabide94 681 24 35
- Alkoholiko Anonim. 94 415 07 51
- Nekazal bulegoa94 681 15 20
- Uren Partzuergoa ..94 681 74 86
- Butanoa (UME).....94 681 08 77
- Araztegia94 620 28 00
- Foru Ogasuna.....94 681 07 42
- INEM Durango94 681 12 96
- Gizarte Segurantzak 94 681 49 58
- Epaitegiak.....94 603 00 51
- KIROLDEGIAK**
- Igerilekua
- Astola94 620 29 29
- Igerilekua
- Atxondo94 623 14 38
- Berriz94 682 43 74
- Durango
- (Landako).....94 621 51 30
- Durango
- (Tabira)94 621 51 50
- Elorrio94 682 10 27
- Zaldibar94 682 73 74

EGURALDIA

- 6** **8° BARIKUA**
- Temperaturak gora egingo dau, baina giro bustiagaz jarraituko dogu. Zerua estalita egongo da goizean, eta euria egingo dau. Elur kota 600 m-tik 1.000 m-tara igongo da. Iparraldeko haize bizia ibiliko da.
- 9** **12° ZAPATUA**
- Euria egingo dau, batez be, goizean. Azken orduetan ostarteak zabalduko dira. Iparmendebaldeko haize ahul-bizia ibiliko da. Temperaturak barikukoak baino altuagoak izango dira.
- 6** **17° DOMEKA**
- 3** **12° ASTELEHENA**
- 9** **22° MARTITZENA**

anboto, durangaldeko astekaria

Egin zaitez harpidedun



durangaldeko
bherriak
ezagutzeko

harpidedun egiteko, deitu
94 623 25 23 telefonora edo
harpidedun@anboto.org-ra
zure izen-abizen eta helbidea bidali

eskerrik asko

www.aralar.net



ezkerreko **alternatiba** abertzalea



aralar

KIROLAK >



Lurreta Txirrindulari Elkarteak 25 urte bete zituen zapatuan. Elkar-tearen urteko lehenengo ekital-dia urteurrena ospatzeko baliatu zuten kideek. Lurretako plazan hasi eta amaitu ohi den martxa, Bakixako sozietatean amaitu zuten. Izan ere, orain mende laurdena hantxe ospatu zuten elkarte osatzeko batzarra.

Lehenengo junta hartan izan ziren 15 lagunak omendu zituzten, Laixiar sarien bidez. Sasoi hartan sinatutako sortze-akta pergamino erako dokumentu dotorean erregalatu zieten. Horrez gainera, akta hori jasozten duen koadroa ere eskegi zuten Bakixako elkartearen.

Honako 15 lagunak dira orain 250 bazkide inguru dituen elkarte sortzeko borondatea

25 urte eginda, bizi-bizirik

erakutsi eta ahalegina egin zutenak: Juan Bixente Narbaiza (lehendakaria), Joan Angel Rekalde (lehendakari ordea), Iñaki Etxebarria (diruzaina), Justo Alberdi (idazkaria), Fernando Agirre, Joan Antonio eta Tomas Alberdi, Jose Antonio Artiñano, Javier, Julian eta Sabino Bilbao, Gontzal Sarrigoitia, Jesus Mari Urien, Juan Luis Usabel eta Jesus Mari Zenikaonandia.

Elkarte dinamikoa

Lurreta Txirrindulari Elkarteak askotariko ekitaldiak antolatzen ditu urtean zehar. Bizi-bizirik eta indartsu dagoen elkarte da. Ekin berri dioten denboraldiko egutegia bete-beteta dago. Ekitaldi asko ohikoak dira; asteburuetako martxak, esaterako. Bai-

Lurreta Txirrindulari Elkarteak mende laurdena bete du otsailaren 28an

na ekimen berriak ere prestatzen dituzte. Adibidez, irailean Eskolarteko BBT Criteriuma antolatuko dute Arandia inguruan. Gazte-xoei begirako ekimena da. Orain arte, criteriuma errepideko bizi-kletarekin antolatu izan dute, baina mountain-bikearekin egiten duten lehen aldia da. Horrez gainera, urtean zehar Euskal Herri-tik kanporako hainbat irteera egingo dituzte. ■ J.D.

24 San Prudentzio Txapelketa hasiko da

Gaur hasiko da 15. aldia beteko duen San Prudentzio pilota txapelketa. 200 pilotari ariko dira kadete, gazte eta nagusien mailan. Finalak maiatzaren 1ean jokatuko dira.

25 Sokatiraren festa bihar Abadiñon

Abadiñoko Sokatira Taldeak sokatira jaialdia antolatu du biharko, Zelaietako probalekuan. Euskal Herriko 12 talde batuko dira. Baita Asturiasko eta Herbehereetako bana ere.

San Prudentzio txapelketak 15. aldia beteko du aurten

Gaur hasita, ehun bikote inguru lehiatuko dira hiru kategoriatan. Finala, ohitura den legez, maiatzaren 1ean jokatuko da.



Aurkezpen ekitaldian txapelketako antolatzaileak eta babesleak elkartu ziren.

San Prudentzio pilota txapelketak 15 urteko ibilbidea osatuko du aurten. Ehunka pilotariri eman die pilotan jokatzeko eta pilotan gozatzeko aukera. Pilotariak etorri eta joan egin dira, urteak bezalaxe, eta batzuk profesionaletan dihardute gaur egun. Joan ez den bakarra antolatzaileen gogo da: Atxarte pilota eskola eta Lanoste elkartearena.

Aurtengo aldia ia ehun bikote izango dira lehian: 35 kadeteetan, 51 gazteetan eta 12 nagusietan. Guztira, Euskal Herri osotik etorritako 196 pilotarik parte hartuko dute. 70 pilota eskolatako ordezkariak osatuko dute.

Txapelketa gaur hasiko da. Maitzaren 1eko finalera bitartean 28 jaialdi jokatuko dira bariku iluntzetan, eta, zapatu eta domeka arratsaldetan; hiru edo lau partidu jaialdiko. Gaur, 20:15ean hasita lau partidu jokatuko dira: Gorosabel-Pujana Egaña-Ortuzar

eta Artabe-Arrizabalaga Lujanbio-Murgiondo kadeeetan; Bilbao-Rodero Iturbe-Camara eta Urigoitia-Larrazabal Bilbao Lizeaga gazteetan.

Partiduak bariku, zapatu eta domeketan jokatuko dira; finala maiatzaren 1ean

la 200 pilotari ariko dira lehian hiru kategoriatan banatuta

Aurkezpen ekitaldian Bizkaiako Pilota Federazioko ordezkariak eta Frontis enpresako ordezkariak izan ziren, eta baita Abadiñoiko alkate Jose Luis Navarro

ere, babesle ugarietz gainera. Denek azpimarratu zuten txapelketak egun duen garrantzia, gazteei jokatzeko aukera ematen dielako.

Eskualdeko pilotariak

Durangaldeko hainbat pilotari izango dira lehian hiru kategoriatan. Kadeteetan, Errasti eta Maguregi iurretarek bikotea osatuko dute; baita Ocerin eta Urrejola otxandiarrek ere.

Gazteetan, lau abadiñar (Arabiourrutia, Alustiza, Bizkarra eta Aspuru) eta berriztar bi (Loidi eta Urkijo) ditugu. Azken hauek bikotea osatuko dute.

Nagusietan, Durangaldeko ordezkari guztiak elorriarrak dira. Azpirik eta Landaburuk elkarrekin jokatuko dute txapelketan. Larrinaga Perez sestaoarrarekin ariko da, eta Beitia Ortuellako Lopezekin. Iñaki Larrinaga Biharko Izarrak txapelketan ere jokatzen ari da egunotan. ■ J.D.

Derbia: Tabirako eta Anbotopeko

Saskibaloian derbia jokatuko dute Tabirakok eta Anbotopekok, bihar. Biak Lehen Erregionaleko igoera fasean ari dira. Tabirako azkenengo dago; Anbotopeko, berriz, bigarren, Marrazoak liderrarengandik garaipen batera. Durangoko taldearen egoera berean dago Julza-Zaldia ere. Zaldibarko taldeak Muskizen kontra jokatuko du etxean.

Emakumeetan, Zaldia laugarren dago liderrarengandik garaipen bira. Bihar sailkapeneko bigarrena, Ibaizabal, jasoko dute etxean. Maila berean, Anbotopeko beheko postuetan dago azken hiru partiduak galduta.

Garaipena nahitaezkoa du Abadiñok xakean

Bi jardunaldi bakarrik falta dira liga amaitzeko, eta Abadiñok nola edo hala puntuak behar ditu. Seigarren dago, Orvina Brengandik –hirugarrena, igoera postuan– puntu bi eta erdira. Aurreikustekoa da Orvinak puntu asko batuko dituela Zarautz azken aurrekoaren aurka. Horregatik, azken jardunaldira igoera-

Puntu mordoxka batzea derrigorra da igoerarekin amesteko

rako aukerekin heltzeko, aurtengo saiorik onena osatu behar dute abadiñarrek. Ez dago beste aukerarik, nahiz eta Arlutz bigarren sailkatuaren etxean jokatu.

Bizkaiko Gorengoan Larra-soloeta bigarren dago lidertzatik puntu erdira. Lehenengoa bakarrik igoko da. Zaldi Baltza, aldiz, estu dabil; azken aurreko daude. Talde bakarra jaitsiko da zuzen-an. Euskal Ligatik Bizkaiko taldeak jaisten badira, ordea, azkenaurrekoak ere arriskua du. Euskal Ligan atzeren dagoen taldea Abadiño da, eta ez luke estuasunik igaro behar. ■ J.D.

Agustin Alkorta
• Futbol entrenatzailea



Konfiantza da gakoa

Finalera, finalera, oe,oe,oe... Athletic-ek lortu dau Kopa finalerako billetea. Zorionak!

24 urte eta gero, titulu bat jokatuko dau Barçaren kontra. Adi! 38 partidutara gatxa da, baina partidu batera ez dago faboritorik.

Gauza guztien gainetik, honen inguruan sortu den giroa aipatzekoa da. Ikusgarria izan da Katedralak, Bilbok eta Bizkaia osoak zeukan kolorea eta, batez be, jentearen ilusinoa.

Eta izen propioak aipatzeko orduan, niretzako inportanteena Llorente da. Bere gainean sustatu da taldea, eta berak dakarren konfiantzak eroan dau Athletic lorpen honetara. Ikusgarria da zelako buelta emon deusana bere egoerari denpora gitxian. Eta horrek demostratzen dau:

- Llorenteren progresinoa Caparrosi lotuta dagoela, honek emon deusalako jarraipena eta konfiantza handia.

- Utrerakoak hori emoteko, bere aulkiaren hankak sendoak direla ikusi da. Segurtasuna eta, batez be, denpora klabeak dira talde bat aurrera eroateko.

- Une txarretan zuzendaritzak erakutsitako jarra adibide moduan hartu behar dabela beste zuzendaritza guztiek.

Horregaitik pentsatzen dot Mane, Clemente, Mendi eta Felix (batez be, azkenengo biak), ahalagindu zirela Llorentek eta beste guztiek euren futbolk onena atera zeien, baina ez zen posible izan segurtasun, konfiantza eta, batez be, denpora faltagaitik.

Adituarentxokoa

Larritasunak nahiko urrun ditu Tabirakok

Jaitsiera fasean jokatzea sekula ez da gozoa. Are gutxiago beste borroka batzuetara ohituta dagoen batentzat. Hala ere, Tabirakok laneko arropa jantzi du, eta liga erregularretik zekarren alde eroso handitu egin du Pamplona UPNari 76-72 irabazita. Orain, jaitsieratik hiru garaipenera daude. Errenta ona da.

Bihar Mondragon Unibertsitatearen aurka jokatuko dute kanpoan. Arrasatearrek garaipen bi dituzte, eta azken hirugarren daude, jaitsiera postuan.

Emakumeek partidu benetan zaila dute bihar. Errenkadan bost garaipen daramatzen Arabako EHU jasoko dute Landa-kon. Behaldez ibiltzetik Tabirakorengandik garaipen bakarerra egotera pasatu dira hile eta erdian. ■ J.D.

Durangarrek hiru garaipenera dituzte jaitsiera postuak



Mailari eusteko bide onean da Durangoko taldea. J. Fernandez

Abadiño sokeratira jaialdiak 14 talde batuko ditu bihar probalekuan

Nazioartetik Herbeheretako Lagerwiuj taldea etorriko da, eta Asturiastik Seis Conceyos

Abadiño Sokatira Taldeak jaialdi interesgarria antolatu du biharko, sokeratira bultzatzeko helburuarekin. Euskal Herriko 12 talde eta Asturiastik eta Herbeheretako bana batuko dira Zelaletako probalekuan, 13:00etan aurrera. Hiru proba jokatuko dituzte, eta horietako batean talde mistoak -gizon-emakumeek osatutakoak- lehiatuko dira.

Euskal Herriko datozen taldeak honako hauek dira: Berriozar, Amaiur, Beti Gazte eta Sakana Nafarroatik; Baiona, Ustaritze eta Napurrak Iparraldetik; Abadiño eta Sokarri Bizkaitik; Auzolan eta Girizia Gipuzkoatik; Arabatik, azkenik, Badaiotz. Horietako lau talde emakumeek osatutakoak dira: Girizia, Badaiotz, Sakana eta Beti Gazte. Berriozar eta Amaiurrek, berriz, gizonen eta emakumeen talde bana ekarriko dute. Horiez gainera, Herbeheretako Lagerwiuj eta Asturiastik Seis Conceyos taldeak ere gonbidatuta daude.

Jaialdian hiru erakustaldi izango dira. 13:00etan lau lauren kontra ariko dira, 320 kiloen barruan. Ondoren, 15:00etan,

Nafarroatik lau talde etorriko dira eta Iparraldetik hiru

sei seiren kontrako txapelketa jokatu da talde mistoekin; hiru-na gizon eta emakume talde bakoitzean. Azkenik, 17:00etan, zortziko tiraldiak jokatu dira, 600 kiloen barruan. Abadiño Sokatira Taldeak hiru modalitate-etan parte hartuko du.

Amaieran sariak banatuko dituzten arren, jaialdiaren helburua sokeratira indartzea da, taldeen arteko harremanak sendotuz.

Sei seiren kontrakoan, emakumeek eta gizonek osatutako taldeak lehiatuko dira

Abadiño jaun eta jabe

Goma gainera txapelketari dagokionez, abadiñarrak iazko errekorra berdintzeko bidean dira. Oiarztunen 680 kilora artekoa irabazi dute oraintsu. 600 kilora artekoan ere txapela jantzi zuten joan zen asteburuan, Murgian. Beraz, orain arteko pisu guztietan gailenduta, asteburuan hasiko den 560 kilora artekoa bakarrik falta zaie iazko marka harrigarria berdintzeko. Hiru jardunalditan erabakiko da txapela. Abadiño Berriozar eta Amaiur izango ditu arierio nagusi. ■ J.D.



Abadiño hiru modalitateetan parte hartuko du. K. Aginako

Madrilgo nazioarteko torneoan izango da Sukia

Bigarren urtez jarraian, asteburuan garatuko den Madrilgo Nazioarteko Torneoan gonbidatu dute Sukia Rugby Eskola. Gaur abiatuko dira harantz eskolako 32 gaztetxo: 17 haur-mailakoak eta 12 kimu-mailakoak. Iaz esperientzia ikaragarria bizi izan zuten gaztetxoek, eta Sukiak, ahalegin berezia eginez, aurten ere joatea erabaki du.

Helburua gisa honetako topaketek sustatzen dituzten

balioekin bat egitea da; kirolarekin, elkarbizitzarekin, talde-lanarekin, errespetuarekin...

14an Miarritzera

Durangaldetik kanporako beste irteera bat egingo dute hilaren 14an. Haur-mailako gaztetxoak Miarritzera joango dira. Han Kirolaren Euskal Akademiak emango duen entrenamenduan parte hartuko dute, Biarritz Olimpique-ren zelaian. ■ J.D.

Uztaiko lau gimnasta eskolarteko finalerdietan

Gimnasia Erritmikoko Eskolarteko Txapelketan ederto dabilta Durangoko Uztaiko taldeko gaztetxoak. Joan zen asteburuan, Durangoko Landako kiroldegian jokatuako bigarren jardunaldian, hiru gimnasta sailkatu ziren finalerdietarako: Sara Sendino eta Jasone Uriarte kadete mailan, eta Maialen Madariaga haur-kategorian. Horretaz gainera, klubeko hiru taldek ere aurrera egin dute taldekako txapelketan.

Finalerdia Arrigorriagan jokatuko dira martxoaren 28an. Finalak maiatzaren 9an dira (tokia zehazteke dago). Apirilaren 5ean kimu mailako finalerdia jokatuko dira Durangon.

Sara Sendino, Jasone Uriarte eta Maialen Madariaga sailkatu dira

Agenda

FUTBOLA
LEHEN ERREGIONALA (gizonak)

Zaldia - Lekeltio
Zapatuan, 16:30ean, Solobarrian

BIGARREN ERREGIONALA

Berriz B - Elorrio
Domekan, 11:30ean, Berrizburun

LEHEN ERREGIONALA (emakumeak)

Iurretako - Orduña
Domekan, 17:00etan, Larrako-Zelain

BIGARREN ERREGIONALA (emakumeak)

Elorrio - Paldarrak
Zapatuan, 16:00etan, Eleizalden

SASKIBALOA

LEHEN MAILA (emakumeak)

Tabirako - Arabako EHU

Zapatuan, 17:00etan, Landako kiroldegian

LEHEN ERREGIONALA (igoera fasea-gizonak)

Tabirako - Anbotopeko

Zapatuan, 19:00etan, Landako kiroldegian

Julza-Zaldia - Muskiz

Zapatuan, 18:30ean, Landako kiroldegian

BIGARREN ERREGIONALA

Julza-Zaldia - Ibaizabal

Zapatuan, 16:30ean, Zaldibarko kiroldegian

ARETO-FUTBOLA
EUSKAL LIGA

Sasikoa - Lagun Onak

Zapatuan, 17:15ean, Landako kiroldegian

PREFERENTE MAILA

Kurutzlaga - Alufemar

Zapatuan, 19:15ean, Landako kiroldegian

Elorrioko Buskantza B - Meatzari

Zapatuan, 18:00etan, Elorrioko kiroldegian

LEHEN ERREGIONALA

Abadiño Lagun - Mazusberri

Zapatuan, 17:00etan, Berrizko kiroldegian

Mallabia Bastida - Presion Break

Domekan, 17:00etan, Zaldibarko kiroldegian

BIGARREN ERREGIONALA

Gu Lagunak - Sumi Muguru

Barikuan, 20:30ean, Landako kiroldegian

Hasi Durango - Gernikako Lagunak

Zapatuan, 15:45etan, Landako kiroldegian

Mendibeltz - Biarko Gizonak

Domekan, 11:00etan, Landako kiroldegian

SAILKAPENAK >

Futbola / 3. maila / 4. taldea / gizonak


1- Amurrio.....53	15- Laudio.....29
2- Portugalete.....50	16- Ordizia.....26
3- Elgoibar.....49	17- Alaves B.....24
4- Beasain.....47	18- Zarautz.....23
5- Lagun Onak.....47	19- Eibar B.....13
6- Gernika.....46	20- San Ignacio.....17
7- Zamudio.....39	
8- Zalla.....38	
9- Kulturala.....36	
10- Leioa.....35	
11- Baskonia.....35	
12- Santurtzi.....35	
13- Arenas Gebxo.....34	
14- Amorebieta.....32	

Saskibaloia / 1. maila / Jaitsiera Fasea/ gizonak

1- Bide Bide.....7 (+73)
2- Urdaneta.....6 (+43)
3- Bidegintza.....6 (+52)
4- Tabirako.....6 (+70)
5- Pamplona UPNA.....4 (+33)
6- Mikeldi.....4 (-15)
7- Goierri-Verkol.....3 (-101)
8- Mondragon Uni.....2 (-39)
9- Peña Basket.....2 (-71)
10- Gebxo.....0 (-75)

Saskibaloia / 1. maila / Euskadi/ emakumeak

1- Abaroa.....17 (+206)
2- Bera Bera.....17 (+231)
3- Gernika.....16 (+201)
4- Ardoi.....15 (+158)
5- Atletico SN.....14 (+47)
6- Obenasa.....13 (+58)
7- Tabirako.....12 (+125)
8- Gebxo.....12 (+52)
9- Arabako EHU.....11 (+19)
10- Uni Navarra.....8 (+8)
11- Irlandesas.....7 (-188)
12- Las Gaunas.....6 (-202)
13- Artieda.....6 (-161)
14- Astigarraga.....4 (-246)
15- Easo.....4 (-232)
16- Deusto-Loiola.....3 (-222)




Durangoko Kulturalak 36 gol sartu eta 33 jaso ditu orain arte

ZARATE ELEXPE ERAGILEAK

Bixente Kapanaga 19, behea
48215 IURRETA (Bizkaia)
Tel.: 946 816 673
Faxa: 946 817 636
construcciones@zarateylexpe.biz



LAUHANKA >



Altuera handi batetik izandako erorikoa da katuen artean istripu ohikoena

Lur hartzeko tarte txikia geratzen denean, katuak bere gorputza zabaldu eta luzatu egiten dau

Especialista bategaz katuari buruz berba egitea komenigarria izan ohi da

Katu paraxutista, zazpi bizitzako animalia

Katu ugari sufritzen dau "paraxutistaren sindromea"; altuera handietatik jausten dira

Beti esan izan da katuak ez direla inoiz txarto jausten. Katuek, antza denez, jauziaren ondorengo hegaldian, posizioa hartu eta lau hanketan hartzen dabe lur. Egia da senagaz loturiko ezaugarri berezi hori daukiela, baina beti ez da halan gertatzen.

Izan be, bat baino gehiago dira albaitariaren eskuetatik pasatu behar izaten daben katuak; "paraxutistaren sindromea" izenekoa pairatzen dabe honeek. Hain zuzen be, altuera handiren batetik jaustea da katuen artean istripurik ohikoena, eta horrek ekarri dau gatxaren definizioa. "Katu hegaliaren sindromea" be deitzen jako.

Gure etxe askotan daukaguz maskota lez katuak, eta denok dakigu izaera aldetik zer bereziak diren. Animalia bakarti eta misterioitsu honeek balkoi, terraza edo leihoetatik ibili leitekez, kasu batzuetan ezustekoak hartuz. Kuriositatea, ehi-

zarako gogoia, gaztetasuna... hainbat faktorek eragin leike katuen jokamoldean. Batez be, esperientziarik bako gazteek izaten dabe min hartzeko arriskurik gehien, eta aktibitate sexualak sortutako grina daukienez be bai.

Zergaitik paraxutista?

Katuek ahalik eta postura onena lortzeko saiakera egiten dabe istripuetan, eta, ondorioz, biziraupen maila handia da normalean. Baina kasu batzuetan, guztiz onik irtetzea ia ezinezkoa da: zazpi metro baino gehiagoko altueratik hasitako hegaldietan gertatzen da hori. Eroriketen ondorioz jasandako lesino gehienek, buruan, sabelaldean eta toraxean eragiten dabe.

Ezbeharrak gertatzerakoan, airean joan ahala buelta emoten saiatzen da katuak, daukan orekaren zentzuari esker. Lur hartzeko tarte txi-

kia geratzen denean, animalia honek bere gorputza zabaldu eta luzatu egiten dau, bi helburugaz: gorputzaren azalera handitzea eta aldi berean aireagazko marruskadura be bai. Katuak paraxutaren antzeko forma hartzen dau, eta hortik dator sindrome honen izena.

Prebentzioa

Gure katuak halako istripurik izan ez daian, neurriak hartzea da onena. Ehizarako grina asetzeko, etxe barruan joko-sistemak jarri leitekez, adibidez. Beste katu baten konpainiak be entretenitu egingo dau.

Era horretan arazoa konpontzen ez bada, saretxoak ipini beharko doguz leiho eta balkoietan. Horretara, ehizarako sena erabili ahal izango dau, segurtasunez. Especialista bategaz be katuaren jarreraren gainean berba egitea komenigarria litzateke.

Hurrengo Lau Hanka ataletik aurrera (apirilak 3), zuen etxeko maskotaren gaineko zalantzak argitzeko aukera izango dozue **Etorbide Albaitari Klinikari** esker. Zuen galderei erantzunez, **Alberto Cimarro** albaitariak animalien gaixotasun eta heziketaren inguruko aholkuak emongo deuskuz.

Hasi, beraz, zuen galderak bidaltzen helbide honetara (izena eta herria ipinita): astekaria@anboto.org



IRAGARKI TAULA

saldu, erosi, alokatu, lanean hasi, lana eskaini, ...
aurkitu bilatzen ari zarena eta iragarri nahi duzuna



ESKAINTZAK

Neska euskalduna edozein lan mota egiteko prest, edozein ordutegitan. Esperentzia la zerbitzari bez umeekin...

ERRENTAN EMAN

Durango. Alde zaharreko etxe bat alokagai. Guztiz barriztatuta dago eta hiru gela d 750 euro...

SALDU

Fun roller autokarabana salgai. 2003 urtekoa. 54 km. Motorra Fiat 2.8 JTD 127 zaldi. 24. euro...

HARTU

Neska euskalduna behar dogu 10 urteko neska bati klase partikularrak emateko (ingeles beste irakasg batzuk)...

BEREZIAK

Autoa konpartitzen dut Gasteiztik Otxandiora joateko, astelehenetik ostegunera. 09:30 aurrera...

OPARI


Artzai-txakurrak. Hilabete bateko kuma oparitzen dut. Arra da. Oso polita. ...

ANB (tartea) + iragarkia 7789 (1,2€ + BEZ)
Tel.: 94 621 79 02

IRAGARKIAK

LANA

- Eskakerak
- Eskaintzak
- ETXEBIZITZAK**
- Salgai
- Errentan eman
- Errentan hartu
- Pisua konpartitu
- IRAKASKUNTZA**
- Klaseak hartu
- Klaseak eman
- MOTORRA**
- Salgai
- Erosi
- LOKALAK**
- Errentan eman
- Errentan hartu
- ANIMALIAK**
- Salgai
- Erosi
- BESTEAK**
- Berba egin
- Salgai



Eguazten arratsaldeko 18:00ak arte jasotako iragarkiak soilik argitaratuko ditugu. Mezuak jaso eta hurrengo alean publikatuko dira.

Zure iragarkia argitaratzeko: Bidali ANB (tartea) eta zure iragarkia 7789 zenbakira. Mezu bakoitza: 1,2 euro + BEZ

IRAGARKI PARTIKULARRAK Ordaindutako moduloak fondo beltzagaz eta letra zuriz argitaratuko dira.

IRAGARKI PROFESIONALAK Modulo bat, astero: 7 euro (BEZ barne)

Edozein motako iragarkiak kontratatze honako telefonora deitu: 94 621 79 02

Pertsona nagusiak zaintzeko prest nago. Orduka, gauze edo asteburuetan. Tel.: 650 102 636

Andra euskalduna etxeko lanak egin eta haurrak eskolara eramateko prest. Tel.: 627 468 002

Haur hezkuntzako ikasle euskalduna arratsaldetan umeak zaintzeko eta lanetan laguntzeko prest. Tel.: 625 707 831

Andra euskalduna pertsona nagusiak zaintzeko prest. Tel.: 94 620 11 85 eta 699 745 723. Ines.

Astelehenetik ostiralera bitartean garbiketarako egin edo umeak zaintzeko prest. Tel.: 637 055 978

Neska gaztea Elorrioren portala garbitzeko edo etxeko lanak egiteko prest. Tel.: 657 461 674

Mutil euskalduna umeak zaintzeko prest, arratsaldetan eta asteburuetan. Tel.: 660 464 851

Turismo ikasketadun neska turismo eta ostalaritza arloan lan egiteko prest: hotelak, agentziak, tabernak... Tel.: 646 841 206

Neska umeak zaintzeko, etxeak garbitzeko edo tabernan lan egiteko prest. Tel.: 690 370 178

ETXEBIZITZAK

SALGAI

Etxe bakarra salgai Marietan (Araba). 200 m2 ditu. 5 logela, egongela beheko suarekin, 3 komun eta sukaldia. Garajea 2 kotxerendako eta lorategia be badauka. Tel.: 628 450 965 edo 616 969 920

Durango. Pisua salgai. Goitik behera berriztatutako etxebizitza, estreinatutako prest. Kanpora ematen du eta berogailua du. Ikuspegi ederrak. 60 m2, 2 logela, bainugela eta egongela altzariz hornitutako sukalde amerikarrarekin. 2 balkoi. Aparkaleku partikularra urrutiko agintearekin. 246.000 euro. Tel.: 635 727 937

Elorrio. 67 m2-ko etxebizitza salgai. 3 logela, sukaldia, egongela eta komuna. Kanpora ematen du. Sotoarekin. Tel.: 94 682 02 26 eta 620 441 249

Elorrio. Etxebizitza salgai. 3 logela, komuna, sukaldia, egongela eta trastelekua. Guztiz berriztuta, oso eguzkitsua eta polita. Tel.: 617 787 165

OHARRA

Eroski Movilek ez du zenbaki laburretara mezuak bidaltzeko zerbitzua eskaintzen. ANBOTOK, kasu horretan, ez dauka inongo erantzukizunik.

LANA

ESKAERAK

Durango. Lur sailean lan egiteko mutil bat behar da, astelehenetik barikura. Gidabaimena izatea derrigorra da. Tel.: 616 292 436.

Ikastolen elkarteak begiraleak behar ditu 2009ko aisialdi programarako. Beharrezkoa da euskalduna izatea, aisialdian esperientzia izatea eta ingelesa menperatzea (ingeleszko udalekuen kasuan). Apirilaren 5a baino lehen eman behar da izena. Informazioa: www.biekastola.net

Abadiño. irakasle bat behar da antzerki talde batean umeendako tailerrak antolatzeke. Derrigorrezko baldintza da euskaraz jakitea. Tel.: 666 379 572. Deitu 13:00etatik 15:00etara. Erlantz.

Durangaldea. Eskualdean zabalduko den hortz-klinika batean odontologia laguntzailea behar da. Derrigorra da euskaraz jakitea. Esperientzia baloratuko da. Bidali CVak Abadiñoako Txirri-Txirri gozoki dendara (Zeletabe 8c behea).

Pertsona euskalduna behar da dendari lan egiteko. Tel.: 943 77 00 34 / 943 77 13 52

Durango. Modelatzailea behar da 3Dn egingo den animazio luzemetrai batean lan egiteko. Lan egun osoa. Erreferentzia: 78. SARTU. Tel.: 94-620 04 49. Lanbiden alta emanda egon behar da.

Durango. Blend Shapes teknika behar da 3Dko luzemetrai batean lan egiteko. Lan egun osoa eskaintzen da. Erreferentzia: 79. SARTU. Tel.: 94-620 04 49. Lanbiden alta emanda egon behar da.

Durango. Set Up teknika behar da 3Dko luzemetrai baterako. Lan egun osoa. Erreferentzia: 81. SARTU. Tel.: 94-620 04 49. Lanbiden alta emanda egon behar da.

Durango. Testuriztzailea behar da 3Dko luzemetrai baterako. Lan egun osoa. Erreferentzia: 87. SARTU. Tel.: 94-620 04 49. Lanbiden alta emanda egon behar da.

Zornotza. Automozio elektrizitateko teknikaria behar da. Derrigorra da 10 urteko esperientzia izatea eta inguruen bizitza. Erreferentzia: 886. SARTU. Tel.: 94-620 04 49. Lanbiden alta emanda egon behar da.

Durango. Topografo laguntzailea behar da. Kanpoan eta gabinetean lan egiteko. Derrigorra da heziketa izatea eta inguruen bizitza. Erreferentzia: 889. SARTU. Tel.: 94-620 04 49. Lanbiden alta emanda egon behar da.

Mallabia. Merkataritzako agentea behar da bezeroei bisitatzeke. Derrigorra da 25-40 adin tartekoa izatea, Durangaldean bizitzea eta gidabaimena. Erreferentzia: 1.300. SARTU. Tel.: 94-620 04 49. Lanbiden alta emanda egon behar du.

Durango. Gazte arloko teknikari laguntzailea behar da, denbora libreko ekintzak dinamizatzeko. Derrigorra da euskara menperatzea, Durangaldean bizitzea eta kanpamenduen antolakuntzan esperientzia izatea. Erreferentzia: 1.485. SARTU. Tel.: 94-620 04 49. Lanbiden alta emanda egon behar du.

Durango. Euskara normalkuntza teknikaria behar da gaztelaniatik euskarara itzulpenak egiteko. Derrigorra da euskara menperatzea, Durangaldean bizitzea eta Euskal Filologian edo Itzulpen gintzan lizentziaduna izatea. Erreferentzia: 1.487. SARTU. Tel.: 94-620 04 49. Lanbiden alta emanda egon behar du.

Zornotza. Aseguru teknikaria behar da. 25 eta 45 urte bitarteko pertsona bilatzen da. Esperientzia baloratuko da. Erreferentzia: 11.707. SARTU. Tel.: 94-620 04 49. Lanbiden alta emanda egon behar du.

ESKAITZAK

Neska umeak zaintzeko, tabernan lan egiteko edo etxeak garbitzeko prest. Tel.: 639 847 627.

Neska euskalduna arratsaldetan umeak zaintzeko prest. Tel.: 645 718 030

INMOBILIARIAK

AGENCIA INMOBILIARIA
Fernando Uribe
Barrenkalea, 15 - bajo - Tel. y Fax: 94 681 64 23
48200 DURANGO / Bizkaia

ETXEBIZITZA BERRIAK

- Andra-Mari: Apartamento berriak salgai.
- Zaldibar: Eraikitzen dauden etxebizitzak salgai.
- Abadiño: Txaleto bifamiliarra lur eremuarekin salgai.
- Atxondo: Adosatua lursailarekin salgai.
- Atxondo: Baseria salgai.
- Erretentxu: Adosatua eraikitzen.
- Erretentxu: Txaleto bifamiliarra eraikitzen.
- Otxandion: Adosatua. Eraikuntza berriak.
- Otxandion: Familia bakarrekoko etxea lursailarekin salgai.

ETXEBIZITZA SALGAI

- Alluitz: Halla, sukaldia jantzia, egongela- jangela, 4 logela, 2 komun, 2 balkoi.
- Montebideo: Halla, sukaldia-jantokia, logela bakarra, komuna eta balkoia. Etxe jantzia, igogailua. Eraikuntza barria.
- Montebideo: Halla, egongela-jangela, sukaldia, 2 logela, 2 komun eta balkoia. Etxe jantzia, igogailuarekin eta berogailua hiriko gasarekin.
- Andra Mari: Estudioak guztiz berriztuta.
- Andra Mari: Halla, sukaldia, jangela, egongela, 4 logela, 2 komun, egongelatxo. (135 m2).
- Antso Eztegi: Halla, egongela, sukaldia, 4 logela, komuna, bainugela, balkoia eta ganbara.
- Ambrosio Meabe: Halla, egongela-jangela, sukaldia jantzia, 2 logela, komuna eta ganbara.
- Aramotz: Halla, egongela, sukaldia, 3 logela, komuna eta balkoia.
- Montebideo: Halla, egongela- jangela, sukaldia, 5 logela, 3 komun. Terraza eta ganbara. 150 m2.
- Arriluzeta: Halla, egongela, sukaldia, 2 logela eta komuna. Balkoia eta atikoa.
- Astarloa: Halla, egongela, sukaldia, 4 logela eta komuna. Terraza.
- Abadiño: Halla, egongela-jangela, sukaldia jantzia, 3 logela, 2 komun. 2 Garaje. Etxe guztiz jantzia.
- Abadiño - Matiena: Halla, sukaldia, egongela, 2 logela, komuna eta ganbara.
- Abadiño: Berriztatutako. 3 solairuko etxea.
- Barrenkale: Halla, egongela, sukaldia, logela eta komuna.

ERRENTAN EMAN

Apartamentua alokagai Marina Dorren. Urtean zehar edozein

denporalditan erabiltzeko moduan. Tel.: 670 214 924 (Miren) eta 610 539 991 (Santi)

Durango. Gela handi bi alokagai Durango erdialdean. Kontakua: luganok@gmail.com

ERRENTAN HARTU

Bikotea gara eta errentan hartzeko etxe bila gabiltza Durangon edo inguruetan. Txakurra daukagunez, balkoia edo lur zatitxo bat nahi dugu. Tel.: 636 657 564

Emakume euskalduna eta 9 hilabeteke semea baserri baten bila alokatzeko edo konpartitzeko. Sukaldaritzako begetariano eskaintzeko prest. Tel.: 94 681 15 05

Durango. Bikote gaztea alokatzeko pisu bila.Hilean 500 euro inguru.. Tel.: 647 897 647

KONPARTITU

Elorrio. Pisua konpartitzeko pertsona baten bila nabil. Tel.: 609 939 095. (Lore)

Durango. Pisua konpartitzen da, gela, bainugela, egongela propioa eta

sukalde konpartituarekin. Tel.: 650 738 724

Abadiño. Baserri berriztatua konpartitzeko etxekide bila gabiltza. Tel.: 678 019 005

Durango. Konpartitzeko pisu edo etxe bila nabil.Tel.: 666 202 273

IRAKASKUNTZA EMAN

Ingeniaritza ikaslea klase partikularrak emateko prest: matematikak,fisika-kimika, euskara, ingelesa...(EGA eta advanced). Tel.: 616 345 890

Alemanierako klaseak ematen ditut. Etxera joateko prest nago. Tel.: 609 939 095

Ingeles eskola partikularrak ematen ditut. Gaztetxoei eskolako lanak egiten lagunduko nieke. Tel.: 620 339 224

Itzulpengintza ikasketak egindako neska euskalduna Durangaldean arratsaldez ingeles klaseak emateko prest.Tel.: 669 100 124

First tituludun maisua ingelesezko klaseak emateko prest. Adin guztietako jendearentzat. Euskara klaseak ere emateko prest (EGA eta euskaldun zaharra). Tel.: 685 752 398 (Jon)

MOTORRA SALGAI

Citröen c15 diesela salgai. 8 urte eta 140.000 km ditu. 1.000 euro. Tel.: 636 339 971

Renault megane dynamique 1.5 dci salgai. 5 ate, beltza, 2007ko abenduko. 30.000 km. Egoera onean. Tel.: 655 712 105.

Renault 21 Turbo Diesela salgai. 1.300 euro. Tel.: 679 475 785

Seat Altea 2005 TD1a salgai. Aukera onekoa. Tel.: 675 212 960 / 696 135 954

Maxiscooter Yamaha Tmax 500 ABS salgai. 2006 urtekoa. Extra guztiekin. 5.600E. Tel.: 628 413 848

Fiat Grande Punto 1.4 salgai. 75 zaldi Gasolina. 2006 urtekoa. Egoera onean. 5.000E. Tel.: 695 594 105

ANIMALIAK SALGAI

Alemaniar artzai-txakurrak. Kumak salgai ditut, pedigreearekin. Tel.: 655 749 239

OPARI

Epagneul breton arrazako txakurra oparitzen dut. Bost urte ditu. Paseorako aproposa. Tel.: 622 266 911

LOKALAK

ERRENTAN EMAN

Durango. Garaje itxia alokagai J.M. Altuna kalean. Tel.: 652 865 780 (deitu asteburuetan)

Tastelekua alokagai. 15 m2 ditu eta merkea da. Tel.: 629 415 416

Berriz. Trasteleku txiki bat alokagai Geltoki kalean. Tel.: 94 622 56 73

Mallabia. Garaje mekanikoa alokagai. Berehala lanean hasteko ekipamendu guztiarekin. 104 m2. Tel.: 635 757 228

Berriz. Garaje itxia alokagai. Kotxe bat sartzeko modukoa. Tel.: 94 622 56 73

BESTEAK

SALGAI

Lur-saila. 13.500 m2ko lur-saila salgai Zaldibarren. Eraikitzeko aukerarekin. Prezio onean. Tel.: 629 419 411

Sutarako pago eta haritz egurra. Edozein neurritan salgai. Etxerako bidalketa. Tel.: 644 194 722

Oilagorretarako eskopeta. H Zabalavencedor modeloko paralela. 60 zmkoinoia. Eskuma estriatua eta ezkerre lisua. Berri-berria. Tel.: 622 266 911

Lur-saila. Zornotzako Larrean lur-saila salgai. Laua, uragaz eta bideagaz. Argindarra bertan. Oso polita, errekaagaz. Tel.: 94 622 51 75

Mendiko bizikleta. 2008ko dirt jumpeko scott voltage yz. Oso egoera onean (behin erabilia), 475 eurotan. Tel.: 655 706 713

Mendiko bizikleta. 2008ko scott gambler fr10 (DH/free ride). Oso egoera onean (goitik behera berriku-sia). 2.375 eurotan. Tel.: 655 706 713

Bi technics sl-clz 1.200 (cd platoak) berriak salgai. Garantiarekin. 1.200 euro biak. Negoziatzeko aukera. Tel.: 616 095 655 (deitu 18:00etatik aurrera)

Trikitixa. 1.000 eurotan. Tel.: 687 281 981 (Inaki)

EROSI

Basoa. Lur zati bat erosiko nuke Durangon edota Durango aldean. Ez zait axola txikia izatea edota leku ez oso erosoan egotea. Tel.: 676 685 052 eta 660 369 973

BEREZIAK

Atxondo. Karabanak gordetzeko zerbitzua. 900 m2-ko lokala. Tel.: 618 608 908

Dantzariak ezkontza eta ospakizunetan aritzeko prest. Txalpartariak eta trikitilariak ere gehitu daitezke. Tel.: 617 084 902

Autoa konpartitzen dut Gasteiztik Otxandiora joateko, astelehenetik ostegunera. 09:30etik aurrera. Tel.: 945 46 14 67 edo 615 723 077

Eskuko desbrozadorarekin garbiketarako egiten ditut. Orduko kobratzen ditut. Tel.: 619 552 202

Txistularia eta dantzaria eskaintzen dira ospakizunetan Agurra egiteko. Tel.: 605 732 108 edo 657 776 469

Denetarikoa margogintza artistikoa egiten dugu. Aitzarien eraldatzea, margolanen erreproduzioa eta marrazkiak zureko zoruetan. Tel.: 678 704 197

Argiñeta

Ururka 1 behekoa • 48230 Elorrio Tel.: 94 682 00 41 Faxa: 94 623 16 30 • argiñeta@euskalnet.net • www.argiñeta.net

ETXEBIZITZA SALGAI

ELORRIO
18 TXALET ADOSATUEN PROMOZIO BERRIA NIZETO URKIZUN. ERAIKITZEN HASITA. PLAZATIK 200 M-TARA.

BERRIZ
PROMOZIO BERRIA. 2 eta 3 logelako 20 etxebizitza. P89: 90 m2. 3 logela, egongela, sukalde eta 2 komun. Trastelekua eta garajea. Eguzkitsua.

ATXONDO
PROMOZIO BERRIA.1, 2, 3 eta 4 logelako etxebizitzak. Leku onean. 44 etxebizitza.

ABADIÑO
C20: Txaleta. 193 m2 lau solairutan. 3 logela, egongela, sukalde eta 4 bainugela. Garajea, txokoa eta atikoa. Berria.
P79: 85m2. 3 logela, sukalde, egongela eta 2 bainugela. Atikoa. Garajea eta trastelekua. Ia berria.

DURANGO
P81: 90 m2. 4 logela, egongela, sukalde eta komuna. Eguzkitsua.

ZALDIBAR
P90: 72 m2. 3 logela, egongela, sukalde eta komuna. Despentsa eta trastelekua.

ELORRIO
P80: 72 m2. Ia berria. 2 logela, egongela, sukalde eta 2 komun. Trastelekua eta garajea.
P83: 92m2. Dena barriztuta. 3 logela, egongela, sukalde eta 2 komun. Guztiz jantzia. Zentrikoa.
P77: 68 m2. Guztiz barriztatuta. 2 logela, egongela-sukalde eta bainugela. Jantzia. Oso polita. Berogailu radiantea. 90m2-ko lorategia.
P76: 44 m2. Berria. Atikoa igogailuarekin. Logela bakarra, egongela, sukalde eta bainugela. Gas naturaleko berogailua.
P65: 30 m2. Ia berria. Atikoa: logela 1, sukalde-egongela eta komuna. Igogailua. Prezio ona. Gas naturaleko kalefaktzioa.

ISD Inmobiliaria del Duranguesado

Askatasun etorbidea, 10 48200 DURANGO Tel./Faxa:94 681 66 66 inmobiliad@euskalnet.net www.inmoduranguesado.com

ETXEBIZITZA SALGAI

- Askatasun Etorbidean: Promozio berriak. 1,2,3 eta 4 logelakoak.
- Logela bakarra garajea eta trastelekuarekin 162.000 + BEZ
- -2 logela garajea eta trastelekuarekin 224.000 + BEZ
- -3 logela garajea eta trastelekuarekin 353.000 + BEZ
- -4 logela garajea eta trastelekuarekin: kontsultatu.
- Tabira: Luxuxko etxebizitza berrien promozioa.
- Berriz: Familiabakarreko etxebizitzak eraikitzen. 1.000 m2-ko lursaila.
- Zornotza: Erdialdean. 2 logela, berritzeko.
- Berriz: 2, 3 eta 4 logelako etxebizitzak.
- Elorrio: 2 eta 3 logelako etxebizitza k.
- Iurreta: 2 eta 3 logelako etxebizitzak.
- Matiena: 2 eta 3 logelako etxebizitzak.
- Mañarian: Etxebizitza ia berria. Bizitzen sartzeko prest.
- Mañaria: Etxebizitza berriak estreinatzeke, erosi ia alokairu gisa.
- Zaldibar: Lur saila salgai. Eraikitzeko aukera.
- Zaldibar: Etxebizitza tasatuak. Zozketa gabe.
- Aramat: 2 logela, egongela eta komuna. Bizitzen sartzeko prest.
- Aramat: 3 logela, egongela eta 2 komun. Garaje bikoitza 28 m2 kanpoaldera ematen duena.
- Ezkuri: 3 logela, egongela, sukalde eta barriztatu beharreko 2 komun.
- Askatasun Etorbidea: 3 logelako etxebizitza dotorea, egongela-sukalde eta 2 komun. Garajea eta trastelekua.
- Askatasun Etorbidea: Duplexa. 2 logela, egongela, sukalde jantzia eta komuna. Eguzkitsua.
- Landakon: 3 logela, egongela, sukalde, 2 komun eta 2 terraza. Garajea eta ganbara. Bizitzen sartzeko prest.
- Fray Juan de Zumarraga: Duplexa.Ezin-hobea.
- Zabale: 90 m2-ko etxebizitza polita. Garajea eta ganbara. Eguzkitsua.
- San Inazio: 2 logela. Azkeneko solairua. 80 m2-ko TERRAZA. Eguzkitsua. Prezio interesgarria.
- San Inazio: Beheko solairua. Pertsona nagusientzako egokia. Gurrpil-aulkiei egokitutako atea dituen etxebizitza.Hego-Mendebalderuntz orientatua.

ETXETXO G. INMOBILIARIA

Fray Juan de Zumarraga, 4. www.etxetxo.com Tel.: 94 681 40 40 DURANGO

ERAIKUNTZA BERRIAK

- Durango: ETXEBIZITZA BERRIAK SALGAI. Terrazarekin.
- Zaldibarren: Etxebizitzak garajearekin. Zozketa egin gabe tasatutakoak. 138.000 €-tik aurrera.
- Zaldibarren: 2 eta 3 logelakoak. 2 komun. Trastelekua eta garajea. 228.400 €.
- Ermodo kalean: Eraikuntza berria. 105 m2. Guztiz kanpora ematen du. Ganbara, garajea eta trastelekua.
- Tabiran: Promozio berria. Luxuzko etxebizitzak.

ETXEBIZITZA SALGAI

- Antso Eztegiz: 4 logela eta 3 komun. Aukera ona.
- Trenbide kalean: Atikoa. 3 logela. Guztiz berria. 216.000 €.
- Uribarri kalean: Bizitzen sartzeko prest.
- Uriagatorre kalean: 3 logela, egongela, sukalde eta komuna. Trastelekua. 183.000 €.
- Andra Marin: Apartamentua. 162.000 €.
- Alde Zaharrean: Berriztatua. 3 logela. 186.000 €.
- Mikeldi kalean: Apartamento berria. Garajea eta trastelekua.
- Tronperri kalean: 100 m2. Garajea eta trastelekua. Terraza eta txokoa.
- San Inazio kalean: 2 logela, 2 komun eta egongela. Guztiz berria. Estreinatzeke.
- Askatasun Etorbidean: 3 eta 2 logela. 2 komun, egongela eta sukalde. Berriak. Garajea eta trastelekua.
- Komentu Kalean: 90 m2. 3 logela eta 2 komun. Ganbara eta garaje itxia.
- Intxaurrondo kalean: Apartamentu polita. 2 logela, egongela eta komuna.
- Murueta Torren: Berria. 3 logela. Ganbara eta garajea. 360.000 €.
- Artzetagan kalean: Apartamentu berria garaje eta trastelekuarekin.
- Plateruen Plazan: Pisu altua. Erdi berria. Egongela beheko suarekin. Garajea eta trastelekua.
- Durangon: Txaleta. Estreinatzeke. 410 m2,4 solairutan banatuta. Lorategiarekin.
- Matienan: Pabilioi berria. 400 m2. 10 m2-ko altuera. (Eroski ondoan)

Amboto

San Agustinalde, 4 - 1 Eak.DURANGO TE: 94 681 35 62 email: amboto@euskalnet.net

ETXEBIZITZA SALGAI

DURANGO


- Apartamento berriak eraikitzen.700 € hilero.
- Andra Mari: 110 m2. 3 logela, komuna, egongela eta sukalde. Leku onean.
- Erdialdea: Apartamentu berriak. Logela bat edo bikoak. 172.000 €-tik hasita.
- San Inazio Auzunea: Berriztatua berria. 3 logela, (logela printzipala komuna eta jantzigelarekin), 2 komun, sukalde eta egongela balkoiarekin. Aire girotua. Ganbara eta garajea.
- Bolivar: 2 eta 3 logelako etxebizitza berrien eraikuntza. Garaje itxiak.Durangotik 15 minutura. 174.000 €-tik hasita. ORDAINKETA MODUAK NEGOZIATZEN DIRA.
- Barrenkale: Azkeneko apartamentuak eta duplexak. Eraiki berriak.
- Franzisko Ibarra: Logela bakarreko apartamentua. Garaje eta ganbara. Berriztatuta.
- Askatasun Etorbidea: 125 m2. 3 logela, 2 komun, sukalde eta egongela. Ganbara, garajea eta trastelekua. Guztiz kanpora ematen du.
- San Inazio auzunea: 2 logela, 2 komun, sukalde eskegitokiarekin, egongela. Eraiki berria. Guztiz berria estreinatzeke.
- Astarloa: 3 logela, egongela balkoiarekin, sukalde, eta komuna. Ganbara.
- Tabira: Estreinatzeke. 3 logela, 2 komun, sukalde balkoiarekin eta egongela. Garaje itxia eta trastelekua.
- Fray Juan de Zumarraga: 2 logela, sukalde-jantokia, egongela txikia eta komuna. Despentsa.
- Juan Antonio Abasolo: 3 logela, komuna, egongela eta sukalde. Prezio interesgarria.
- Zubiurre: 2 logela, 2 komun, egongela, sukalde eta garaje itxia.Guztiz berria.Estreinatzeke.

IURRETA

- 2 logela, komuna, sukalde eta egongela balkoiarekin. Igogailua. Gas naturaleko berogailua. Prezio interesgarria.

DENPORAPASAK >

HITZ GEZIDUNAK >

	Bizigarria	Su	Eztenak
	Oihu eginez	Umeak	
	Puska		
	Arrainen edukiontzi		
Nekaldi	Agure nahasia		
*Bizkaiko mendia	Mugarriak		
Tamaina			
Oraingo Umm Qais			
		Potasioa	
		Esan	
Landare mota			Zimur
Azoka			
		Idi, hitz elkarketan	
		Ald., badago	
Garai, aldi		Igelaren antzeko	
Izen arabiar		Ukapen	
		Udalerri	
		Oinarritzko edari	
Dute			
Autobus txiki			

SUDOKU >

1		7	9		5	4
		1	5			6
				1	2	
1	9	3	7			
	2	8	9	7		
		1	5	9	3	
	4	2				
9				4	3	
6	8			3	1	

2		7		6			3
						9	8
	3	4					
2			4			7	
1			2			3	
				1			9
		9	1				4
7	5			2		1	
				6			2

4	1	8	3	6	5	7	9	2
7	5	3	4	9	2	6	1	8
6	2	1	7	8	5	3	4	
3	4	6	5	1	7	8	2	9
1	9	7	2	8	6	4	3	5
2	8	5	9	4	3	1	7	6
9	3	4	8	5	1	2	6	7
5	6	2	7	3	4	9	8	1
8	7	1	6	2	9	4	5	3

6	5	8	7	9	3	1	4	2
7	4	2	1	8	6	5	9	
8	7	6	1	4	5	2	9	3
3	2	5	8	6	9	4	7	1
1	9	4	3	2	7	8	6	5
5	6	9	4	3	1	7	2	8
4	8	1	5	7	2	9	3	6
9	8	6	5	1	4	2		

S	U	B	O	R	R	I	K	I	M
E	L	A	U	K	A	D	A	T	•
L	D	U	•	I	L	A	T	•	•
O	A	P	•	O	A	R	O	•	•
I	•	I	A	I	R	I	A	•	•
•	A	K	A	R	I	A	R	•	•
K	•	A	R	A	D	A	R	A	•
I	A	R	R	U	R	E	N	•	•
I	A	R	G	I	K	A	R	Z	•
R	E	R	A	G	U	E	R	•	•
I	A	T	I	Z	•	•	•	•	•
Z	U	H	I	O	•	•	•	•	•
•	S	•	P	•	•	•	•	•	•

ZOZKETA >

Badaukagu ANBOTO astekariak Eusko Labelekin batera zotz egiten dauen otzararen lehenengo saritua:

LOURDES ERCILLA GOITI mañariarra



ZORIONAK ETA ON EGIN!

ZORION AGURRAK >

agurrak: zorionak@anboto.org-ra
Santa Ana 6, 48200 durango



Laidak bi urtetxo beteko ditu datorren martxoaren 8an. Zorionak eta mosu handi handi bat "Barbafamiliaren" partez. Ondo pasatu!



Maddi Iñarra Sarobek 5 urte egingo ditu martxoaren 10ean. Zorionak eta mosu handi bat Donostia-ko, Bergarako eta lurretako familiaren partez.



Hamabostero, jasotako zorion-agur guztien artean tarta bat zotz egingo dogu. Horretarako beharrezkoa da bialduta-ko mezuagaz batera

telefono zenbakia emotea. Zorionak **Marek del Valle Czuchra!** Aste honetan zotz egin dogun tarta zuri egokitu jatzu.

HOROSKOPOA >



Aries

martxoak 21 - apirilak 20

Egun osoa sofán botata pasatzen dozu. Azkenean, bertara itsatsita geratuko zara! Mugitu zaitez gehiago, lagun!



Taurus

apirilak 21 - maiatzak 20

Hori da irribarrea hori! Zu ikusteak alaitu egiten dau edonor. Ez itzi besteei zure ezaugarri hori kentzen.



Gemini

maiatzak 21 - ekainak 20

Hankak gehiago altxatzen ez badozuz, estropezu egiten jarraituko dozu. Beti-beti harri berean jaustea be...



Cancer

ekainak 21 - uztailak 20

Bakarragaz gustura ez, eta denak zureak izatea gura dozu. Desio den guztia ezin leiteke eduki mundu honetan!



Leo

uztailak 21 - abuztuak 23

"Athletic gorri ta zuria, danontzat zara zu geuria" dino ereserkiak. Inoz baino zeureago sentitzen dozu finalera iritsi den honetan.



Virgo

abuztuak 24 - irailak 23

Negarretan itota egoteak ez deustu ezer onik ekarriko. Ahaztu egizuz iraganeko amodioak eta begiratu aurrerantza.



Libra

irailak 24 - urriak 23

Leku guztietan ipintzen dozu belarria. Ez zaitez sartu besteen kontuetan, eta zeureetan arreta handiagoa ipini egizu.



Scorpius

urriak 24 - azaroak 23

Zeuir emon behar eutsuen Oscarretako aktore onenaren saria. Hainbesteko interpretazioagaz, azkenean ondokoa minduko dozu.



Sagittarius

azaroak 24 - abenduak 23

Beti izten dozuz argiak piztuta. Zure bizitzak argia behar dauen seinale? Hile amaierako fakturretan igarriko da behintzat.



Capricornus

abenduak 24 - urtarrilak 20

Indarrak hartzeko ondo etortzen dira bitaminak. Bitaminarik onena, baina, egunero ilusinoagaz bizitzea da.



Aquarius

urtarrilak 21 - otsailak 18

Aspertuta bizi zarela? Ez dakizula zer egin zure denpora librean? ANBOTOren denporapasen atalean daukazu irtenbidea.



Piscis

otsailak 19 - martxoak 20

Ez dozu onartzen pertsona horrek erakartzen zaituela. Izan zaitez zintzoa eta ia sorpresarik badaukazu aste honetan!



EUSKO LABELA >

Aske hazitako oiloek jarritako Euskal Baserriko Arrautzak



Euskal Baserriko Arrautzak gure baserrietan hazitako oiloen arrautzak dira. Kanpoan hazten ditue oiloak, baldin-

tza ezin hobeetan eta hazkuntza sistema egokia erabiliz.

Oiloak aske bizi dira egunez, eta gauz kalitatezko atsedentakia daukie. Animalia-ongizatea kontu handiz zaintzen da. Zelai berdez eta fruitu arbolez inguratutako tokietan hazten dira, eta barruan euren atsedena bermatzeko instalazio egokiak ditue.

Oiloen elikadurak be berebiko garrantzia dauka. Izan be, ondo elikatzeak kalitatezko produktua lortzea ziurtatzen dau. Horregaitik, oilo erruleen dieta laboreetan oinarritzen da, eta jaten dutenaren % 50 baino gehiago artoa da.

Horri guztiari, kalitate kontrolari eta ondo egituratutako banaketari esker, arrautza freskoak, osasungarriak eta naturalak lortzen dira, zapore paregabeekin.

Euskal Baserriko Arrautzak, Eusko Labela duten produktu guztiak bezalaxe, hasieratik bukaeraraino kontrolatuta daude. Egungo araudi zorrotzari esker, kontrol sistema zehatzak

ezartzen dira ekoizpen prozesu osoan: ekoizpenean, garraioan, sailkapenean, ontziratzeke unean, identifikazioan eta etiketa ezartzerakoan. Horrela, produktua kalitate, segurtasun eta freskotasun ezaugarri onenetan iristen da kontsumitzailearengana.

Produktu hau zigiluz ondo itxiatu ontzietan aurkezten da. Ontziek Euskal Baserriko Arrautzen logotipoa dute, Eusko Label bereizgarriarekin, produktuaren egiazkotasuna bermatzeko.

DATUAK

2008. urtean 2 milioi eta 100 milatik gora arrautza merkaturatu zituzten Eusko Label markaren pean diharduten 4 ekoizleek. Dena dela, hurrengo urteetan ekoizle kopurua eta ekoizpen nabarmen handitzea itxaroten da; izan be, produktu hau 2007an merkaturatu zen, eta orain poliki-poliki ekoizle berriak dabilz sartzen.

Azpmarratu behar den beste kontua hau da: produktua kontsumitzaileen artean edukitzen dabilen arrakasta.

Arrautza-esnea

OSAGAIK:

- Esne litro 1
- 8 Eusko Label arrautza gorringo
- Irin koilarakada 1
- 5 koilarakada azukre
- Kanela-zotza, limoia

Zelan egin:

Ontzi batean esnea irakingo dogu, geure gustuko lurin batekin: kanela, limoi azala, bitan zabalduko banilla adar bat...

Behin irakin dauenean, albo batean gordeko dogu. Irabiagailuaren hagatxoan laguntzaz, gorringoak, azukrea eta irina nahastutako doguz ontzi borobil batean. Lortzen dogun oreak oso leun egon behar dau.

Ontzi horretara gehituko dogu esne irakina, baina gitxinkaka-gitxinkaka, pikorrik sortu ez dakigun.

Behin hori eginda dagoenean, dena botako dogu irakiten egondako ontzira berriro, eta zurezko koilara baten laguntzaz, bare baina eten barik eraginez, su ezitan jarriko dogu nahasketara, apur bat loditzen den arte.

Apurtxo bat gizendu direnean, katiluetan jarriko doguz, eta katiluak hozkailuan gorde, behar doguzenerako.

On egin!



Hurrengo urteetan ekoizle kopuruak gora egingo dau.

ARDAOAREN NEGARRA "Kortxo-ateratzeko egokiena"



Mikel Garaizabal
Enologoa

Gero eta kortxo-ateratzeko gehiago aurkitu geinke merkatuan. Horren arrazoia diseinuak ardaoaren munduan daukan garrantzia egon leiteke, edo gero eta ohikoagoa izatea ardaoaren munduagaz zerikusia daukien gauzak oparitzea. Askotariko kortxo-ateratzekoak dagoz. Nire ustez, egokiena bi denborakoa da. Erosoena, funtzionalena, praktikoena, txikiena, poltsikoan ondoren sartzen dena eta, gainera, merkeena delako. Bestalde, aire bidezkoak, palankadunak, karranka bidezkoak eta beste hainbat aurkitu leiteke; baina, egia esan, alde batetik ez jataz oso praktikoak iruditzen eta, beste alde batetik, batzuen kasuan erraza da tresnaren espiralagaz kortxo zeharkatzea. Hori gertatuz gero, kortxo zatiak jauziko litzatekez ardaora, eta hori desatsegina izango litzateke.



Eusko Labela: ona den seinale



Baimendutako harategia
Euskal Okela
Carnicería autorizada

Euskal Okela inguruko harategi hauetan aurkituko duzu

Abadiño

- PINILLA HARATEGIA
TRAÑABARREN, 29-MATIENA

Zaldibar

- GALLASTEGI HARATEGIA
ZALDUASOLO PLAZA, 8

Olxandio

- GAZTAÑETA HARATEGIA
ARTEKALE, 25

Durango

- GALLASTEGI HARATEGIA
ANTSO ESTEGIZ KALEA, 1

- INAKI HARATEGIA
SASIKOA KALEA, 10

- OKA HARATEGIA
ANDRA MARI, 3

Baimenduak: Euskal Okela saltzeko Harategi Baimenduak

Especializatuak: Baimenduak izateaz gain, Euskal Okelarekin eta Eusko Labela daramaten beste produktu batzuekin konpromiso handiagoa duten harategiak

Euskal Herrian ekoiztuak, ingurunea errespetatuz eta kontrol zorrotzak pasatuz, gozo-gozoak, eta kalitate handikoak. Honelakoak dira "Eusko Label" zigilua duten gure produktuak. Bilatu logotipoa eta desberdintasuna dastatu.



Orain, gainera, Kalitatezko Euskal produktuekin betetako saski bat irabaz dezakezu.



Goi-mailako elikagaiak
Alimentos de calidad superior

Kalitatezko euskal produktuekin betetako saski baten zozketan parte hartzeko "Eusko Label" zigilua duen produkturen baten etiketa zure datuekin eta telefonoarekin batera bidali hurrengo helbide honetara:

Erref.: "Eusko Label Saskia"
Anboto Astekaria
Santana, 6
48200 Durango

Hilero azken ostiralean saski bat zozketatuko dugu hurrengo produktuekin: kilo 1 Arabako Babarruna, pote 1 "Ibarrako Piparrak", pote 1 Ezti, litrazabal gazta 1/2, botella 1 "Bizkaiko Txakolina", botella 1 "Arabar Errioxako Ardoa", botella 1 Arabar Errioxako Olio Birjina, Txakolinazko bonboi-kutxa 1 eta 30Eko txantel 1 Euskal Okelaz, Euskal Esne Biltzaraz edo Euskal Baserriko Ollasokaz trukatzeko.



Iñaki Sanchez
Irakaslea

Internet

Datu bat argitzearren, Internetera salto egin dut. Lehenik, bilatzailean hitzak idatzi. Segundo bat baino arinago, erantzuna: 20.200 sarrera. Pantailako materiala aztertzen hasi naiz. Informazioa guztiz bestelakoa da leku batetik bestera, edukia zuri-tik beltzeraino aldatu daiteke. Hamaikagarren sarreran, informazio amaigabe eta nahasiak aztoratuta nauka. Azken lotura horietara jo dut, bidean ezer interesgarriagorik utzi ote dudan jakin barik. Noraezean nabil?

"Batuetan Interneten datuak ziurtzat jotzen ditugu, behar bezala egiaztatu barik"

Egia da Interneten datu eta eduki piloa dagoela; egia da bilatzeko sistema arina eta eroso dugula, oso. Baina esan beharra dago bilaketan beste batek aukeratutako bidean abiatzen garela. Izan ere, bilatzaile desberdinek emaitza desberdinak ematen dizkigute. Orduan, zergatik erabili hau eta ez bestea? Eta behin sarrerak pantailan agertzen direnean, zer irizpideren arabera antolatu dira? Nork eta nola ordenatu ditu? Jakin badakigu denak aztertzeke denborarik ez dugula. Beraz, askotan lehenengo horiek begiratu ondoren, datua ziurtzat jotzen dugu, agian, behar bezala egiaztatu gabe.

Hortaz, Internet sarea munduan munduko errealtatara hurbiltzeko tresna azkarrak eta eraginkorak da, zalan-tzarik ez. Hala ere, leku zabal horretan ikusteko, askotan beste batek aukeratutako betaurrekoak erabiltzen ditugu. Kontrolpeko begirada inozentea al da?

"Pilotan jokatzeari gustatzen jatan, konpetizinoia bape ez"

Emakume erraketariak gogora ekarriko ditue Durangon; omenduetako bat Begoña Ereñaga da

Sasoi haretako gizarteak inposatzen zituen ereduak apurtuz, hainbat emakume kirolari izatea erabaki eban 1940ko eta 1950eko hamarkadetan. Gerrate Zibileko oinazea ahaztu barik zeukien oraindino. Gaur be iraultzailea litzatekeena orduan lortu eban erraketariak: emakumeek frontoiak betetzea. Begoña Ereñaga durangarrak be bide hori hartu eban. Hamabost urte zeukazela Sabadellera joan zen jokatzera. Martxoaren 8a dela-eta, ondo merezitako omenaldia egingo deusie.

Nondik jatorrtzu pilotarako zale-tasuna?

Gerra sasoiaren Frantziako eskola baten egon ginen, errefuxiatu legez. Frontoi bat zegoen han, eta lau urte gehiago zituen nebagaz pilotan jokatzeko neban.

Gustura jokatzeko zenuen?

Bai. Beste mutil batzuk etorri eta joateko esanez gero, galdu arte ez nintzela joango esaten neutsen.

Noiz ekin zeuntsan erraketagaz entrentzeari?

Hamabost urte egiteko nintzela, Eibarrera joaten ginen jokatzera.

Zelan sortu jatzun Sabadellera jokatzera joateko aukera?

Hamabost urte egin barri nituela, amari esan neutsan proposamena egin eustela eta joan gura nebala.

Etxean erabaki hori ulertu eban?

Nire ama mundu asko ikusitakoa zen. Nire etorkizuna han ete zegoen ez zekiela erantzun eustan, eta aproba egiteko. Hemen gosea baino ez zegoen.

Zelako esperientzia izan zen?

Martxoan joan eta gabonetan itzuli nintzen. Ikusi neban han zer zegoen, eta etxera bueltatzea erabaki neban. Marilagun handia han izteak pena handia emon eustan, baina familia neukan hemen.

Sabadellen ondo bizi zinen?

Han be gosea. Etxe baten egon ginen. Hango andrea nahiko ganorabakoa zen, eta lehenengo astean jaten emoten euskun, baina gero ezer be ez. Elektrizitateko enpresa bat zeukan gizon on batek lagundu euskun.

Partiduasko jokatzeko zenuen?

Arratsaldeko bostetan partiduak hasi, eta apostuak egiten zitueen. Frontoia beteta egoten zen, batez be, azkenengo partiduetan.

Sabadellera joan behar izan zinen pilotan jokatzeko.

Hemen hasi bagina partiduak jokatzeko, kolpeka aterako ginduezen frontoitik. Matxistak ziren hemen. Sabadellen, Madrilen, Sevillan, Mexikon... arrakasta izan eban emakume askok.

Onak zinen-eta!

Nik neuk ez neban nabarmentzeko moduko lorpenik egin, baina gizon

askok gurako leukie hareetako batzuk zeukien mailara heltzea. Frontoiak azken orduan bete egiten ziren, nagusien partiduak ikusteko. Merceditas eta Toñita bikotea, esate baterako, bikaina zen.

Pozik itzuli zinen.

Bai, baina ez naz joan izanaz damutzen. Bestela, bizitza osoan pentsatuko neban joan izan banintz zer gertatuko zen. Niri, pilotan jokatzeari gustatzen jatan, ez konpetizinoia.

Jentearen esamesakentzun behar izan zenuen?

"Gizonen kirol" baten jardutearren hemen fama txarra jartzen euskun.

Sabadelleko bizimodua, baina, ez zen txutxumutxuek esaten eban modukoa.

Eskola baten moduan bizi ginen. Enpresarioa oso serioa zen, eta bizitza oso ordenatua geukan. Libre gengozenean, partiduak ikusten egoten ginen.

Ordutik, kirola egiten jarraitu dozu?

Beti izan naz kirolzalea eta beti gustatu izan jataz "mutilen gauzak". Ilobekin tenisean asko jokatu dot. Orioko kanpinean ibiltzen ginen.

Begoña Ereñaga

Erraketalaria izandakoa

82 urte daukaz



Lea Artibai
Ikastetxean ikasi
ondoren kalitatezko
lana daukat

<p>erdi mailako zikloak</p> <ul style="list-style-type: none"> meks Mekanizazioa mez Mantenimendu elektromekanikoa fcz Gintze instalazioak 	<p>goi mailako zikloak</p> <ul style="list-style-type: none"> afs Administrazioa das Informatika ias Elkargaiak its Telekomunikazioak irs Elektrizitate/electronika pms Mekanika pfs diseinua eta fabrikazioa (CAD-CAM-CAE) moldaketa eta linterizaturako
--	---

lea artibai
IKASTETXEA

Xemein Etorbidea, 19, 48270 Markina-Xemein (Bizkaia) Tl. 94 616 90 02, faxa: 94 616 91 60
info@leartik.com www.leartik.com